

LEKUAN LEKUKO

# anboto

ELKARRIZKETA

## "Egunerokoa etengabe erreproduzitzen da hizkuntza politika" / 2-3

Miren Otxotorena Aranguren  
Soziolinguistika doktorea



JAIK

## Gastronomia ekitaldiak eta musika emanaldiak nagusi Zaldibarko jaietan asteburuan / 11

ZERBITZU PUBLIKOAK

## Durangarrek hiri autobusa izango dute erabilgarri uztailean zehar, proba pilotu legez / 4



AITORTZA

## Juan Mari Areitio bertsolariari esker oneko ekitaldia egingo diote irailean / 18



## "DRTko presidente izatea klubak 20 urtean eman didana bueltatzeko modua da"

Zorion Zabala buru duen zuzendaritzak uztailean urtebete egingo du Durango Rugby Taldearen kargu. Proiektu sendo bat garatzea dute helburu, jokalariai klubean geratu daitezten / 20

Zorion Zabala, DRTko presidentea.

**SCHMIDT**  
SUKALDEAK ETA ETXeko ALTZARIAK

Uztailaren 1etik 31ra  
**ESKAINITZA BEREZIA**

www.home-design.schmidt

ABADIÑO

Joseba Derteano DURANGO

Miren Otxotorena Aranguren (Durango, 1998) soziolinguistikaren doktorego tesia egin du. Cum laude kalifikazioa eta nazioarteko doktorego aipamena lortu ditu. Tesia Equiling ikerketa-proiektuaren barruan garatu du. Bertan, Madrilgo unibertsitate publikoetara joandako euskal, katalan eta galiziar hiztunen bizipenak aztertu ditu, soziolinguistika kritikoaren ikuspegitik. Hizkuntzaren inguruko botere-harremanak eta eguneroko praktiketan erreproduzitzen diren desorekak izan ditu ikergai.

**Zertan datza zure tesia eta zer da Equiling proiektua?**

Proiektu koordinatu bat izan da, hainbat azpiproiektu izan duena: bana Euskal Herrian, Katalunian, Galizian eta Madrilen. Ni Madrileko taldean egon naiz, ikasketak eta doktoretza Madrilgo unibertsitate autonomoan egin nituen eta. Proiektuan hiztunengan ipini dugu fokua, ez hizkuntzan. Hizkuntzaren bitartez sortu, ezarri, erreproduzitu eta mantentzen diren botere harremanak aztertu ditugu. Proiektua soziolinguistika kritikoaren ikuspegitik garatu da. Prozesu linguistikoak prozesu ekonomiko, politiko, sozial eta historikoekin uztartuta garatu ditugu.

Kokapen geografikoak garrantzi handia du. Madril sinbolikoki estatu zentralizatu baten hiriburua da. Bertan dauden hizkuntza ideologiak eta hizkuntzaren inguruko ezagutza estatu mailan hegemonikoak dira. Euskaldun bat, katalan bat edo extremadurar bat Madrilerara doanean hango hizkuntza ideologia hegemonikoagaz talka egiten du. Eta orduan negoziazio prozesu bat sortzen da, ideologia hegemoniko eta ez-hegemonikoen artean.

**Nortzuekin batu zarete ikerketa egiteko?**

Ikerketa unibertsitateetan zentratu da. Hiztun profil anitza izan du ikergai, espazio formalak nahiz ez formalak hartu dituelako. Marko teorikoa-politiko berdinarekin aterkipean, datu bilketarako prozesuak diferentiek izan dira. Esaterako, soziolinguistika ikasten zebiltzan ikasleekin botere harremanen, ideologia elebakarraren eta ideologia monodialektalaren inguruko lanketak egin ditugu, besteak beste.

## "Madrilgo jende askoren iruditegi sozialean ez dago hiztun elebidunik"

MIREN OTXOTORENA ARANGUREN SOZIOLINGUISTIKAN DOKTOREA ETA IKERTZAILEA

Equiling proiektuaren barruan egindako tesian, Madrilen hizkuntza gutxituen hiztunei eragiten dizkieten egiturazko desorekak eta botere-harremanak aztertu ditu



Miren Otxotorena, soziolinguistikaren doktorea eta Equiling ikerketa-proiektuko ikertzailea.

**Zer ondorio nagusi ateratu duzu ikerketatik eta zein izan da gehien harritu zaituen aurkikuntza?**

Hainbat ondorio nabarmendu daiteke. Alde batetik, boterea ez da goitik behera datorren zeozer, hartu-emanetan garatzen den zeozer baino, norabide askotakoa. Hau da, boterea ez dator bakarrik estatutik eta estatuak ezartzen dituen hizkuntza politikatetik. Eguneroko mikropraktiketan garatzen den zeozer da, baina askotan ez da ikusten. Hori argituta, ondorio

nagusi bat hau da: egunerokotasuneko elkarreraginean, egitura mikro horretan, egitura sozial makroa etengabe islatzen eta erreproduzitzen da. Demagun euskal hiztun aktibo baten eta

**"Historia etengabe dago presente hizkuntza ideologietan eta eguneroko praktiketan"**

madrildar baten artean elkarrengin puntual hori izaten dela; ideologia hegemonikotik ari denak sarbide handiagoa du espazioa bere modura antolatzeke, botere handiagoa du bere mundu ikuspegia ezartzeko.

Gero, soziolinguistika kritikoaren ikuspegitik, prozesu linguistikoak beste prozesu batzuekin uztartu ditugu, eta nire tesian oso ageri geratzen zen nazionalismoek eta neoliberalismoak prozesu linguistikoetan duten garrantzia. Biak etenga-

be agertzen dira, eta beti batera. Beraz, ez dira prozesu independenteak, denbora osoan elkar elikatzen dabiltzanak baino. Hemen ondorio bat azaleratzen da: prozesu biak hizkuntza gutxituko hiztunen kontra doaz etengabe. Beste modu batean esanda, hizkuntza gutxitua galzten irteten da gurutzaketa politiko-ekonomiko horretatik. Beraz, euskararen ikuspuntutik eta Madrilen bagaude, euskarak ez du balio espainiar proiektu politikorako, ezta merkatu linguistikorako ere.

**Beraz, hiztun elebiduna ikusezin bihurtu daiteke.**

Badago hiztun elebidun batzuen aldeko aitortza bat, baina beti ere biak hizkuntza hegemonikoak badira: gaztelania eta ingelesa, gaztelania eta japoniera... Hizkuntza ingelesa barik euskara bada, anekdota legez hartzen da. Madrilen, sarritan, egunerokoan ez da igartzen Euskal Herriatik, Kataluniatik, Valentziatik edo Balear Uharteetatik joandako hiztun elebidunak daudela. Jendearen ezagutza maila baxua da oro har, eta horrek harritu egin nau. Honako hau ere kontuan hartu behar da: Euskal Herrian unibertsitateko doazenean badakite zer den hizkuntza gutxitu bat edo egotera diglosiko bat. Madrilen, ostera, ez dakite. Batxilergoan soziolinguistika ikastea ez da hango hezkuntza sistemaren parte. Orduan, Madrilgo jende askoren iruditegi sozialaren barruan ez dago hiztun elebidunik. Ez da jabetzen pertsona batek bere egunerokotasunean gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabili dezakeela naturaltasunez. Madrildar baten aurrean euskara edo katalana erabiltzea oso praktika markatua bihurtu daiteke.

**Adibide praktikoa batzuk ipini ditzakezu diozuna hobeto ulertzeko?**

Begira, Madrilen egindako elkarrizketetan galdera hau egin izan didate inoiz: "Posible da eskolan dena euskaraz ikastea?". Beste adibide bat: katalan guztiei galdetzen diete ea independentistak diren. Euskaldunek ere esan izan didate. Hau da, iritzi politiko bat ematera behartuta gaude. Batzuetan, euskaldunen batek edo katalanen batek bere iritzia eman gura izango du gai horren inguruan, baina beste batzuetan gurago luke egoera hori bizi ez. Kontua da beste batzuei exijitzen ez zaien egoe-

ra bat dela. Normalean, madrildar batek ez du zertan iritzirik eman Espainiako historiako errege bati edo beste bati buruz. Ez dago behartuta. Ez dut generalizatu gura, baina gertatzen da.

Beste adibide bat. Madrilen bizi zen Mallorcako bati galdetu nion: "Jendeak badaki elebiduna zarena?". Honakoa erantzun zidan: "Etxera ea trenez joaten naizen galdetu izan didate. Beraz, zelan jakingo dute mallorkeraz egiten dugula Mallorcan?". Hau da, pertsona hark ez zekien itsasoa

zeharkatu behar dela Mallorcara joateko. Galiziar hiztunek esan didate Madrilen 'paletos' deitzen zietela galiziera erabiltzen zutenean. Jokabide hori historikoki eraikitako iruditegi sozialaren ondorioa da. Hizkuntzak pertsona horrengan aktibatzen duen iruditegi soziala oso lotuta dago, kasu honetan, Espainiar estatua-ren historiagaz. Landa eremua 'paleta' eta antzerako terminoekin lotzea oso presente dago oraindino.

**Espainiako historian noraino egin beharko genuke atzera iruditegi sozial horren sorburua aurkitzeko?**

Jende askok frankismora jotzen du gaur egungo testuinguru soziolinguistikoa ulertzeko. Baina begirada atzerago ipini beharra dago. Errekonkistan bertan erparatu daiteke hizkuntzaren bidezko homogeneousazio proiektu baten hasiera. Ondoren, Espainiako Inperioaren hedapenak eta ondoren etorri ziren gatazka sozial eta politikoek ere laguntzen dute gaur egungoa ulertzen. Dena oso lotuta dago.

**Esan duzu historia oso presente dagoela. Zelan islatzen da hori gaur egungo hizkuntza-praktiketan?**

Historia etengabe dago presente. Hizkuntza-ideologietan, iruditegi sozialean, hizkuntza-politiketan... Batzuetan ez da arau idatzirik egoten, baina badira arau sozialak. Inork ez dizu esaten Madrigo unibertsitateko ikasgela batean gaztelania estandarrean berba egin behar duzunik, baina Durangon egiten duzun moduan berba eginez gero, baliteke azentuagaz edo berba egiteko moduagaz

zerikusia duten gauzak entzutea. Hor ikusten da hizkuntza-politika ez dela bakarrik goitik datorren arau edo dokumentu bat; egunerokoan guk geuk ere etengabe erreproduzitzen dugun zeozer da.

Equilingen ere argi ikusi dugu badagoela etengabeko zaintza linguistiko bat. Hiztunak une oro dabilta hautematen zer den normala testuinguru ba-koitzean, eta horren arabera

moldatzen dituzte hizkuntza-praktikak. Etengabeko negoiazioa da: zelan berba egin, noiz aldatu hizkuntza edo erregistroa, zer espero duten besteek... Horrek guztiak gure jokabidea baldintzatzen du.

**Zer irakasten digu horrek euskaldunon egoerari buruz? Zer egin daiteke hizkuntza gutxituetako hiztunak aitortuago sentitu daitezen?**

Pedagogia handia egin behar dela esango nuke. Azken finean, denok ditugu hizkuntzagaz loturiko bizipenak. Horregaitik, beharrezkoak dira jendea elkartuko duten espazioak, elkarri entzuteko balio duten espazioak. Azken batean, parte hartzea da gakoa. Nire ikerketako parte-hartzaile askok kontatu didate unibertsitateko klaseetan isilik geratzen direla, ez direlako eroso sentitzen gaztelania estandarrean berba egiten. Horrek erakusten du desberdintasunak ez direla abstraktuak: eguneroko egoera zehatzetan agertzen dira. Nor geratzen den isilik, nork hartzen duen berba eta zergatik, hortxe dago benetako desberdintasuna.

**"Euskaldun bat Madrilerara doanean, talka egiten du hango hizkuntza hegemonikoagaz"**

**"Nor geratzen den isilik eta nork hartzen duen berba, hortxe dago desberdintasuna"**



Otxotorena defentsa tribunalagaz, tesi zuzendariagaz eta ikerlari nagusiagaz.



**UDA KO ARGAZKI LEHIAKETA**  
2 KATEGORIA 4 SARI



**Laster informazio gchiago**



Durangoko hiri-autobusa.

## Durangon hiri-autobusa martxan ipini dute, proba pilotu legez

Zerbitzuak Madalena eta Tabirako igerilekuak lotzen ditu. Uztailaren 31ra arte egongo da indarrean. Doakoa da

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Durangoko Udalak zerbitzu publiko berri bat estreinatu du: hiri-autobusa. Proba pilotu legez estreinatu dute, uda sasoirako tresna legez, erdiguneko kaleak eta Tabirako igerilekuak lotzeko. Eguaztenez ipini zuten martxan zerbitzua eta hilaren 31ra arte egongo da indarrean. Zerbitzua probaldian dagoela eta, udalak doan eskainiko ditu bidaiak, asteleheneetik barikura. Orduetegi bi izango ditu, 11:00etatik 14:00etara goizetan, eta 16:30etik 21:00etara arratsaldeetan. Zerbi-

tzuaeren maiztasuna 40 minutukoa da eta autobusak 27 bat minutu behar ditu gutxi gorabehera herriko ibilbidea osatzeko.

### Ibilbidea

Autobusak Madalena hasten du ibilbidea, eta herriko leku hauek zeharkatzen ditu gero: Olleria, Faustekalea, Zeharrendieta, Larrasoloeta eta Zumar kalea. Handik Tabira aldera egiten du, Ibaizabal ikastolaren ondora. Gero, errepide nagusiko biribilgunea inguratu eta Tabira kalera

sartzen da, eta handik igerilekuetara doa zuzen. Herrigunera buelta Gasteiz Bidetik egiten du, eta Otamotzena, Aramotz, Sasikoa eta Fray Juan Zumarraga kaleetan egiten ditu azken geldiuneak Madalena bueltatu aurretik.

Zerbitzu pilotua martxan ipintzeak 14.658 euroko kostua izango du. Horrez gainera, beste 17.470 euro inbertitu dituzte azpiegiturak egokitzeko eta geralekuak seinalezatzeko. Mireia Elkororibe alkateak esan du esperientzia pilotu horrek "haren benetako erabilera ebaluatzeko eta datuen arabera udalerrian behin betiko ezartzeko aukera balortzeko" balioko duela.

Hiri-autobusa Alderdi Popularrak bultzaturiko proiektua da. EAJk eta PSE-EEk proposamena babestu zuten 2025eko udal aurrekontuetan.



Nasa herriko ordezkariak, udal ordezkariak eta Garabidekoak. DURANGOKO UDALA

## Hitzarmena Durangon, nasa yuwe hizkuntza biziberritzea helburu

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Durangoko Udalak eta Garabide elkarteak lankidetzaz hitzarmena berri dute Caucako komunitate indigenen kultura eta nasa yuwe hizkuntza (Kolonbia) bultzatzeko. Horren harira, Nasa herriko ordezkariak Durangon izan dira bisitan, eta alde biek elkarlanean jarraitzeko borondatea agertu dute. Udalak, hain zuzen ere, 16.000 euroko ekarpena egingo du norabide horretan. Diru laguntza horri eskerrak, nasatarrek hizkuntzaren erabilera indartuko dute Caucako eskualdean, irakasle indigenen prestakuntzan lagunduta eta euren errealitatera egokitutako tresna pedagogikoak garatuta.

Udalak herrien nortasuna eta hizkuntza bultzatzeko konpromisoa berretsi du.

### Nazioarteko aitortza

Nasa herriaren bisitak garrantzia berezia hartu du gainera, komunitate horretako *Pentsamendua-aren eta hitzaren haria* (Ju'gthë'sx Pthuuse'jnxi's) programak Linguapax Nazioarteko Saria jaso du eta. Sari horrek komunitateak nasa yuwe hizkuntza berreskuratzeko egindako lana goratu du, eta murgiltze eredu eta belaualdien arteko transmisioa nabarmendu. Nasa yuwe Kolonbiako hego-mendebaldean egiten da eta hizkuntza bakartua da. Guztira, 140.000 hiztun inguru dira.

## Airearen kalitatea dela eta, kezka Durangoko osoko bilkuran

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Herriaren Eskubideak airearen kalitate txarrak eragin duen kezka eraman du Durangoko azkenengo osoko bilkurara. Jorge Varela bozeramaileak adierazi zuen Durangok "egunak" zeramatzala "Euskal Herri osoko aire kalitate txarrean" arnasten, "alde handiz, gainera". Bozeramaileak jakinarazi zuenez, ekainaren 21ean "oso kalitate txarreko eguratsa" izan zen. Eta esan zuen hala adierazi zuela "baita Eusko Jaurlaritzak ere". "PM10 partikularen kontzentrazioak %60 gora egin zuen eta Munduko Osasun Erakundeak markaturiko mugaren gainetik kokatu zen. Erakunde horren

esanetan, partikula horiek arrisku esanguratsuak sor ditzakete osasun publikoan", azaldu zuen Varela. (PM10 indizeak eguratsuko partikula kontzentrazioari egiten dio erreferentzia. Hautsa, errautsa eta metal astuneko partikulak egon daitezke horien artean, besteak beste).

Hori dela eta, talde independenteak eskari bat egin zion Durangoko gobernu taldeari: 2018an onartu zituen protokoloak martxan ipintzea "exijitzeko" Eusko Jaurlaritzari. "Protokolo haiek orain zortzi urte onartu ziren, baina ez dira martxan ipini. EAJri eta PSE-EEri eskatzen diegu auzia seriotasunez hartzeko eta Euskal Autonomia



Jorge Varela. DURANGOKO UDALA

Erkidegoan kutsaduraren eraginez urtero hiltzen diren 1.270 herritarrak aintzat hartzeko", adierazi zuen Varela. "Ez dugu neurri berririk eskatzen, orain zortzi urte onarturikoa betetzea baino", gaineratu zuen.

## Beldar plagaren kontra San Fauston



DURANGOKO UDALA

**E.H.** DURANGO

Durangoko Udalak beldar iletuaren (*lymantria dispar*) kontrako kanpaina hasi du San Faustoko Nafarroa plazan, bertan agerraldia egon dela eta. Lantegi Batuak enpresako kideak kontrol lanak egiten dabilta eta uda osoan zehar egingo dute jarraipena. Udalak jakinarazi du beldar hori ez dela arriskutsua gizakiaren osasunera, baina haren ile erresumingarriek narritadurak sor ditzakete larruazalean.

## Indarkeria matxistari loturiko 17 kasu Durangon lehen hiruhilekoan

Erakundeen arteko protokoloan eta Andraguneko Indarkeria Matxistaren Unitatean erregistratu dituzte kasuok

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Durangoko Udalak herrian artaturiko indarkeria matxista kasuen berri eman du. Urteko lehenengo hiruhileko datuak dira, urtarriletik martxora bitartean jasotakoak, eta erakundeen arteko protokoloan, Andraguneko Indarkeria Matxistaren Unitatean erregistratutakoak. Datu horien arabera, indarkeria matxistagaz loturiko 17 kasu identifikatu dituzte Durangon. Euretari 13 erakundeen arteko protokoloan salatu dituzte (genero indarkeriagaz loturiko 8 kasu eta familia barruko indarkeriari loturiko 5). Indarkeria Matxista Unitatean 6 espediente zabaldu dituzte (genero indarkeriazko 4 eta familia barruko indarkeriazko eta sexu jazarpenerako bana). Horrenbestez, 19 espediente zabaldu dituzte, baina kasu bi erakundeen arteko protokoloan eta Indarkeria Matxistaren Unitatean salatu direnez, 17 dira identifikatutako kasuak.

Jesica Ruiz Berdintasun zinegotziak adierazi duenez, "kasu bakoitzak oraindino ere presente dagoen errealitate bat islatzen du". Hori dela eta, udalak "arre-



Andragunea. DURANGOKO UDALA

ta hurbila eta eraginkorra indartzen" jarraituko duela iragarri du, "emakume bakar bat ere ez dadin bakarrik sentitu".

**Beldur Barik**

Indarkeria matxista prebenitzeko bide legeez, Durangoko Udalak bat egin du Emakundek, EUDELeK eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek bultzatutako *Beldur Barik, gau eta egun* kanpainagaz. Egitasmoak jai seguruak, libreak eta errespetuzkoak bultzatzeko lan egingo du.



Gerediagako Patri Laiseka eta Gotzon Gomez, Garaiko alkate Erramun Osa eta Lazaro Milikua. GEREDIAGA ETA GARAIKO UDALA

## Garaiko Udala eta Gerediaga elkarteak herriko ondarea batzen hasi dira

Baserrietako dokumentuak, argazkiak eta material zaharra batzen hasiko dira, baita elkarrizketak grabatzen ere

**Ekaitz Herrera** GARAI

Gerediagak eta Garaiko Udalak herriko ondarea batzeko eta dokumentatzeko egitasmoa hasi dute. Hiru adarreko proiektua da, elkarrizketak egitea, material grafikoa batzea eta herriko etxeetan gordeta egon daitezkeen dokumentu zaharrak batzea helburu duena. Izaera etnografikoko egitasmoa da, horrenbestez.

Elkarrizketek dagokienez, Gerediagako lantaldea Garaiko bizimoduari buruzko testigantzak grabatzen hasiko da herritarrekin: berbaldietan etxeen arkitektura

eta diseinua, ogibidea, elikadura, errituak, kantak, jolasak, eskola eta auzolana aletuko dituzte, besteak beste. Gerora, grabazio horiek sarean ipiniko dituzte ikusgai. Bestalde, irudi zaharren bilketak iraganeko bizimodua islatzeko balioko du, eta baserrietan gordeta egon daitezkeen dokumentu zaharrak baliagarriak izango dira herriko historian eta ohituretan sakontzeko. Egitasmoaren bultzatzaileen berbetan, dokumentuek familia, jabetza, nekazaritza jarduera eta komunitate harremanen irudia jasotzeko balioko dute.

Garaiko alkate Erramun Osaren berbetan, egitasmoa beharrezkoa da herriaren ondarea jasotzeko: "Herri baten ondare materiala eta ez materiala mintzajardunean, bizipenetan, kontakizunetan, belaunaldirik belaudu transmititzen diren ohituretan, toki izenetan, etxeetan gordeta, baliorik ematen ez diegun paperetan eta abarretan islatzen da. Herri erakundeen zeregina da ahalegintzea horiek guztiak ikertu, arakatu eta bil daitezen". Gotzon Gomez Gerediaga elkarteak presidentearen ustez, ondarea biltzeak historia ulertzeko gakoak eman ditzake. "Herritarren kontakizunak entzunda eta etxeetan egon daitezkeen dokumentuak aztertuta, Garaiko herriaren historian barneratuko gara. Lana baliozkoa eta interesgarria izango dela uste dugu", esan zuen Gomezek.

## Frontoia berriztu eta aterpe berri bat atonduko dute Durangoko Institutuan

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Durangoko Institutuko frontoiak eta inguruak itxura berria izango dute laster. Goitik behera aldatuko dute frontoiko teilatua, eta kendu egingo dituzte barruko harmailak. Era berean, kanta goratuko dute lurra berdintzeko. Aterpe berri bat ere eraikiko dute frontoia batxillergoko eraikinagaz lotzeko, eta ebaquazio-eskailera metalikoa berriztuko dute. Halaber, hainbat jarduketa egingo dute patioetan, zoladurak berrizteko. Obrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egingo ditu; aurreikuspenen arabera, urteko azken hiruhilekoan hasita. 1,25 milioi

euroko aurrekontua onartu dute horretarako.

Obrek datorren ikasturtearen hasieragaz bat egingo dutela eta, Durangoko Udaleko, Institutuko eta Hezkuntza Saileko ordezkariak egutegia adosteko batu dira, ikasleengan ahalik eta gutxien zelaz eragin pentsatzeko. Gainera, frontoia eskola orduetatik kanpora zabaltea ere adostu dute alde guztiek.

Bestalde, Durangoko udalbatzak interes orokortzat eta udal onurakotzat jo ditu Institutuko lanak. Aitorpen horrek Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari eragingo dio, hobaria aplikatzea ahalbidetu du eta.

## Naiz Market azokak 20 marka eta artisau batuko ditu zapatuan

**E.H.** DURANGO

Zumalakarregi kalea puntako sortzaile eta artisauen topaleku izango da Naiz Market azokaren edizio berrian. Feria zapatuan egingo dute, uztailek 4, 10:30etik 20:30era. Sortzaile hauek izango dira bertan: Sorginxaboiak, Babalora, E-Mendi, Luralai, Sincio Nomad, Txiki Bitxiak, Benhiu, Minik, Valnakyu, Estudio melange, Arthika, Ama, Revoluciona, Baialabai, Brewery Land, Bloosi, Libiano inspiración, Stratosferica, Irene Ormaetxea, Bitxik Kool, El coleccionista de gafas, Bor\_bags, Mhize, Arima, Elortatxu baserria, Halo, Bitxo Bola, G\_Atelier, Matxetenekua, Nalei Detail eta Kiribilak.

## Buruarinen tailerra, uda hasteko



GOIENA

**E.H.** GARAI

Trumoitte elkarteak *Garai Uda Giroan* ekintza sorta prestatu du uztaileko lehenengo asteburuetarako. Zapatu honetan estreinatuko dute egitarau sorta, uztailearen 4an, buruarinen tailerra egingo dute eta frontoian. Jardunaldia 10:00etan hasiko dute. Uztailearen 10ean aire zabaleko zinema saioa egingo dute, eta uztailearen 17an Andoni Oilokiegiren kontzertua egingo da.



Liburutegia beheko harrobian atondu dute, garai bateko kamioien baskulan.



Liburutegiaren barrualdea.

## Liburutegi aske eta komunitarioa atondu dute Atxarteko instalazioetariko batean

Eskalatzaile talde batek liburutegi irekia ipini du kamioien baskula zaharrean

**Ekaitz Herrera** ABADIÑO

Mendizale eta eskalatzaileek bakea bilatzeko beste leku bat dute Atxarten: liburutegi bat. Beheko harrobian dago, garai bateko kamioien baskulan. Eta askea da, librea. Parke Naturalera atarramendu urbanotik ihes egin guran doanari lasaitasuna handitzeko modukoa. Eta barruan, literatura. Mendiari loturiko gaiak, jakina, baina baita biografiak, saiakerak, eleberririk zein haur literatura ere. Euskarazko liburuak batzuk, gaztelaniazkoak beste hainbat. Apaletan

ipinita zenbait, eta maleta baten barruan atonduta ere bai bana-ban batzuk, akaso, Emily Dickinsonek esan zuen moduan, liburuak delako urrutira bidaiatzeko ontzirik onena.

Atxarteko liburutegi askean edozeinek hartu ditzake liburuak. Eseri. Irakurri. Eta edonork egin ditzake dohaintzak, proiektuak ez duelako izen-abizenik. Egitasmoaren bultzatzaileek gurago dute-eta gerizpean egon, "hau zezozer komunitarioa delako". "Askotan joaten gara Atxartera; mendira, eskalatzera, eta irakur-

tzera ere bai, eta sarritan amaitu izan ditugu eskalada saioak baskularen ondoan. Hor jesartzen ginen atsedean hartzen. Eta ikusten genuen leku hori utzita zegoela, zikinez beterik. Orduan, eremua txukuntzea eta egoteko

**"Lekua zikin eta utzita zegoenez, txukuntzea eta erabilera bat ematea pentsatu genuen"**

leku bat sortzea pentsatu genuen", azaldu dio ANBOTOrri egitasmoaren bultzatzaileetariko batek. Lehenengo zereginetako bat etxolako horma margotzea eta *Atxarteko liburutegi askea* idaztea izan zen. Askea bezain menditarra, liburutegia mendiko legean oinarritzen delako: parean gurutzatutako ibiltaria ezaguna ala ezezaguna izan, mendizaleak berdin-berdin agurtzen duelako. Filosofia bera aplikatu diote liburutegiari: "Lagun batek ekarri zuen lehenengo liburuak, eta egundoko ilusioa sentitu genuen. Gerora, jendea ekarpenak egiten hasi da apurka-apurka. Liburu berriak agertu dira. Mahai bat ekarri du batek, eserlekua beste batek. Eta halaxe, apurka-apurka, denontzako espazioa sortu dugu", esan dute egitasmoaren bultzatzaileek. Liburutegi askoren marka modura zigilu propioa

ere sortu dute, etxolako atondoan irudikatuta ageri dena.

**Norabide berri bat**

"Atxarte leku izugarria da", esan dute liburutegiaren bultzatzaileek. "Gura duzuna egin dezakezu han, ingurunea errespetatzen duzun bitartean. Egundoko altxorra dugu hor, eta zaintzea dagokigu", gaineratu dute. Beharbada, liburutegia proiektu txiki bat izan daiteke garai bateko harrobietako hormak berreskuratze norabidean. Abadiñoko Udala, herritarrak, EHUko Ekopol taldea eta instituzio publikoak zeregin horretan dabilta, hain justu ere. Oraingoz, mendizaleen eta eskalatzaileen tribua da pauso bat aurrera eman duena. Amets egiteko leku berri bat sortu dute. Mendia eta eskalada ziren lehen, eta literatura batu zaie orain.

## Mankomunitateak adinekoentzako eguneko arreta zerbitzua esleitu du

**M.Z. ABADIÑO**

Gizarte zerbitzuak indartzeko bidean, Durangaldeko Mankomunitateak eguneko arreta zerbitzua emateko kontratua lizitatu du. Zerbitzu honen asmoa arreta zerbitzu integrala eskaintzea izango da, ikuspegi pertsonalizatu eta komunitario batetik. Zerbitzu berriak, gainera, senide eta zaintzaileei laguntza garrantzitsua emango diela jakinarazi dute. Mankomunitateak eta Abadiñoko Udalak esan dute baliabide honek familiaren eta komunitatearen arteko oreka hobetzen lagunduko duela.



Idoia Otaduy, Mikel Urrutia eta Edurne Maguregi.

## Gizonezko bi atxilotu dituzte Mallabian, kablea lapurtzea egotzita

**M.Z. MALLABIA**

Joan zen astean, Ertzaintzak 52 eta 45 urteko gizonezko bi atxilotu zituen Mallabian. Ohar baten bitartez azaldu zutenenez, Mallabarrena auzoko argiteria publikoko kutxatiletako kablea ostu guran zebiltzala harrapatu zituzten. "Ertzaintzak dei bat jaso zuen. Agenteak bertaratu eta sastraka batzuetatik gizonezko bi irteten zebiltzala ikusi zituzten. Susmagarri biak identifikatu eta miatu zituztenez, hainbat erreminta eta labana bat aurkitu zizkieten. Baita inguru horretako 350 metro kable ere", azaldu dute oharrean. Gizonezko biak aurretik ere inoiz atxilotu dituztela azaldu zuen Ertzaintzak.

## Bakarkako frontenis ligarako izen ematea martxan Mallabian

**M.Z. MALLABIA**

Mallabia Kirol Elkarteak bakar-kako frontenis txapelketa antolatzen dabil irailerako. Txapelketa irailaren 4an hasiko da eta hile osoan zehar jokatuko dira partidua. Hurrengo jardunaldiak irailaren 11n, 12an eta 13an izango dira, eta finalak irailaren 20an.

Oraindino denbora dezente falta den arren txapelketa hasiteko, izen emateak martxan daude dagoeneko. Interesdunek 669 02 87 10 telefonora idatzi dezakete. Guztira, hamasei plaza daude eskuragarri. Plazak betetzen ez badira, izena emateko epea irailaren 1ean amaituko da.

# Zenbat ezagutzen duzu Berriz?

Parte hartu gure lehiaketan eta galderarik  
gehien asmatzen dutenen artean...

Afari bat zotz egingo dugu  
**Ereña jatetxean** 🍷

EDONORK PARTE  
HARTU DEZAKE!

Uztailaren 9tik 16ra

SARTU, JOKATU ETA IRABAZI OTORDU BAT!

## Berrizko Elizoste inguruko bizilagunak kexu dira udalagaz jaien eraginagaitik

Ingurua txosnagunetik gertu dago eta zarata eta kalteak jasan dituzte jaietan

Jone Guenetxea BERRIZ

Sarritan, jaiak gozamenen sortzen dute herritarren artean. Beste kasu batzuetan, oster, ospakizuna buruhauste bihurtzen da. Berrizko Elizoste inguruko bizilagunek bigarren egoera hori bizi dute azken lau urteotan. Kaltetuek salatu dutenez, aurten ere hainbat eragozpen sufritu dute joan den asteburuko jaietan. Izan ere, Elizosteko etxebizitza hauek txosnagunetik metro gutxitara daude. Zarata eta kalteak jasan dituztela azaldu dute. "Musika baimendutako dezibelioak baino askoz altuago egon da, eta 08:40ra arte martxan egon zen zapatuan. Aste bitartean ere goizera arte. Gainera, txosnak hain gertu egotera, musikak etxebizitzetan sortzen duen bibrazioaren eraginez alarmak behin eta berriz jo du", esan dute bizilagunek.

Gaineratu dutenez, etxebizitzetan kanpoaldeetan txis parrastadak eta loreontziak apurtuta topatu dituzte. Eta inoiz mehatxuak ere jasan dituztela esan dute. Auzokideek diotenez, udalagaz sarritan berba egin dute gai honi buruz, baina ir-



Elizosteko atari bat.

tenbiderik eman ez dietela iritzita, kexu dira: "Aurten hesi batzuk ipini dituzte segurtasun neurri modura, baina ez dute ezertarako ere balio izan. Jendea berdin-berdin sartu da gure ate aurrera".

Egoera honen aurrean, auzokideek salaketa ipini dute asteon Ertzaintzan, eta irtenbide bila udalera jotzeko asmoa ere agertu dute.

### Udalaren erantzuna

Orlan Isoird alkateak azaldu duenez, Elizosteren kasuan, aurtengo jaietan hesiak ipini dituzte segurtasun neurri legez, auzokideak babesteko. Hala ere, jaien amaieran balorazioa egingo dute zonalde honetan eta baita herriko beste leku batzuetan sortzen diren egoerak aztertzeko.

**"Musika baimendutakoa baino ozenago egon zen, 08:40ra arte"**

ELIZOSTEKO BIZILAGUNAK



Rodrigo Lacasa eta Sara Alvarez. ORAIN-BI

## Martxan da Atxondoko 'Kale antzerkia bultzatuz' zikloa

A. M. ATXONDO

Beste uda batez, kale antzerki sorta antolatuta dute Atxondon. Horrela, ekainaren 28an Barrantik *Kale gorrian* ikuskizuna plazaratu eta gero, uztailearen 15ean izango da antzerkizaleen hurrengo hitzordua. Orain-bi konpainiak *Mute* antzeztuko du Apatako plazan. Mutazioari buruzko obra da konpainiarena eta hainbat erreferentziagaz helduko da gainera; Euskadiko ikuskizunik onenaren saria jaso du Leioako Umore Azokan (2022) eta Bartzelonako Circorst jaialdian (2025), eta iaiz Ohorezko aipamena jaso zuen Feria Ibérica de Teatro jaialdian. "Mutazioa etengabeko zeozer da. Ez

daitezela zomorroak bakarrik mutatu. Muta ditzagun egiturak, baita gu ere, pertsonok, aurrera egiten jarraitzeko, urrunago heltzeko, gorago, zailagoa den horretara!", esan dute konpainiako kideek. Rodrigo Lacasa eta Sara Alvarez aktoreek sortu zuten konpainia, 2019an. Lan honetan, Coral Graciani arduratu da dramaturgiagaz eta zuzendaritza artistikoaz.

2019an ekin zioten ibilbide artistiko profesionalari, eta *Mute* lanagaz kale ikuskizunen arloan izandako harreraren ondoren, aretoetarako bertsioa moldatu zuten. Zikloa Trapu zaharra konpainiaren *Azkena eta bagoaz* antzezlanageraz amaituko da.

## San Antonioko pasabideko lanak hilabete barru amaitu gura dituzte

Guztira, 1.619.158,04 euro inbertitu dituzte



San Antonio auzoa. IREKIA

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Elixabete Etxanobe Bizkaiko ahalzun nagusiak eta Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak Zornotzako San Antonio auzoko N-634 errepide inguruetako lanak bisitatu dituzte aste honetan. Oinezkoentzako pasabide bat eraikitzen dabilta bertan, igogailu eta guzti. Horrez gainera, espalo berriak ere egingo dituzte, eta Bizkaibusen geralekuan ere hobekuntzak egingo dituzte. Guztira, 1.619.158,04 euro inbertitu dituzte bertan, eta lanak hilabete barru amaitzea aurreikusten du Foru Aldundiak. "Lan horiek nabarmen hobetuko dute errepidearen albo banatan dauden etxebizitza eta lantoki eremuen arteko lotura. Izan ere, bide horretako zirkulazio bolumena handia da: 20.000 ibilgailu inguru dabilta egunero, eta, tartean, ibilgailu astun

ugari ere", azaldu zuen Etxanobe ahalzun nagusiak. Zornotzako Udalak 200.000 euroko ekarpena egin du, eta pasabidearen eta espaloien titulartasuna eta mantentze-lanak bere gain hartuko ditu. "Esku-hartze hori bide segurtasuna hobetzeko estrategiaren barruan dago. Zornotzan ez ezik, Iurretan eta Zaldibarren ere egin dira halakoak. Obrak, txikiak zein handiak izan, ez dira proiektuaren zenbatekoaren arabera neurtu behar, sortzen duten onuraren arabera baino", gaineratu zuen Etxanobek.

Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak, bestalde, auzotarren segurtasuna eta babes indartzea txalotu du. "Pasabide berriak bidegurutzeguz seguruagoa eta ordenatuagoa ahalbidetuko du, eta arrisku egoerak ezabatu eta denontzat mugikortasun eredu seguruago bat ekarri", esan zuen.

## Ainhoa Salterain, berriro Zornotzako EAJren alkategai

A.M. ZORNOTZA

Zornotzako EAJk Ainhoa Salterain hautatu du 2027ko udal hauteskundeetan zerrendaburu izateko. "Ilusio eta erantzukizun handiz" onartu du proposamena. "Urte hauek oso biziak izan dira eta gure herriaren indargune, kezka eta asmoak hobeto eza-gutzeko aukera eman didate", azaldu du Salterainek.



Ainhoa Salterain.



# GREMIOEN gida.

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zenbakira

**DEKORAZIOA** 

**JAIO**barnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com


**ZURGINTZA** 

**leike** Eraberritzeak Interiorismoa Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK




[www.leike.eus](http://www.leike.eus)  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf: 94 681 72 29

**ZURGINTZA** 

**ATERPE** KRATZAL

EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar  
635 74 84 65  
[www.carpinteriaaterpe.com](http://www.carpinteriaaterpe.com)

**ELEKTRIZITATEA** 



**ELECTRICIDAD JON**

622 684 284  
electricidadjon@outlook.es

**ITURGINTZA** 



**UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790  
unaigaray@yahoo.es


# Okm batzen gaituen distantzia

## ANBOTOKIDE

### UZTAILEKO ZOZKETAK



**BASA take away** jatetxeko KMO haragidun eta ogi artisaudun hanburgesa eta bi saltsadun patata errazioa opari. Bariku eta zapatu gauetan gozatzeko.



**Xiberu taberna** (Zornotza) bi gosari bikoitz.



**Aukan izozkiak.** 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. (Durango)



**Areatza bainuetxea.** Gau bat logela bikoitza, gosaria + zirkuitu termala 2 lagunentzat.

**EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE  
ETA PARTE HARTU  
GURE ZOZKETETAN!**



## Elorrion Berrio-Otxoa eguna ospatuko dute zapatuan, hainbat ekitaldigaz

J.D. ELORRIO

Zapatuan Berrio-Otxoa eguna ospatuko dute Elorrion. Herriko patroia den San Balendin Berrio-Otxoaren omenez antolatutako jardunaldiak musika, ospakizun erlijiosoa eta herritarren arteko topaketak uztartuko ditu, Elorrioko tradizioetariko bati jarraipena emanez. Egitaraua 10:00etan hasiko da, herrigunean

zehar egingo den txistularien kalejiragaz. Ondoren, eguerdian, luntxa egingo dute herritarrentzat Berrio-Otxoa kalean. Basilikako meza nagusia 12:00etan hasiko da. Elizkizunean koruak parte hartuko du. Eguneko azken ekitaldia, Berrio-Otxoa Abesbatzaren kontzertua, Santa Anako kaperak hartuko du. 20:00etan izango da.



Berrio-Otxoa abesbatzak kontzertua emango du.

## Enplegurako orientazio zerbitzua Elorrion, hilaren 10ean eta 17an



Iturri kultur etxea.

J.D. ELORRIO

Enplegurako orientazio zerbitzuak beste hitzordu bi ditu Elorrion: uztailearen 10eko eta 17ko barikuetan, Iturri kultur etxeko bigarren solairuan. Bertaratzeko, ezinbestekoa da aurretik ordua hartzea, 618 871 743 telefonora deituta. Orientazio zerbitzua enplegua bilatzeko edo lan-egoera hobetzeko laguntza pertsonalizatua (curriculum, lana-elkarrizketak prestatu...) eskaintzen duen zerbitzua da eta Zabaltzen-Sartuk kudeatzen du, Udalaren babesagaz eta Lanbideren laguntzagaz.

## Mañariko memoria berreskuratzeko, argazki zaharren bilketa hasi dute

J.D. MAÑARIA

Ursula Donea adinekoen elkar-teak, Gerediaga Elkartearekin elkarlanean, Mañariko argazki zaharrak bildu eta digitalizatzeko kanpaina abiatu du, Gerediagak ohar batean azaldu duenez. Uztaileko eguazten eta bariku guztietan egingo dute bilketa, Ursula Donea elkartearen lokalean; eguaztenetan

11:00etatik 13:00era bitartean, eta barikuetan 17:00etatik 19:00etara bitartean. Mañariko herritarrei deialdia egin diete XX. mendeko argazki zaharrak biltzen laguntzeko. "Pertsonen, familien, auzoen, gertakarien... irudiak bilatzen gabilta, baita gure herriaren bizitza islatzen duen beste edozein une ere", adierazi dute.



Ursula Doneako eta Gerediagako kideak. GEREDIAGA

## Izurtzako Gertufest jaia irailaren 12an eta 13an egingo dute aurten



Dantza, aurtengo Gertufest jaialdian.

J.D. IZURTZA

Gertufest jaialdiaren aurtengo edizioa irailaren 12an eta 13an egingo dute, antolatzaileek asteon baieztatu dutenez. Urtero legez, Izurtzako jaien barruan izango da. Korralla Sormen Guneak askotariko eragileekin batera antolatzen duen ekimena jaietako ekimenik arrakastatsuenetarikoa izaten da urtero. Santo Tomas parkea gertuko sortzaileen eta adierazpide artistikoen topaleku bihurtzen da dantzekin, antzezlanekin eta beste ikuskizun batzuekin. Aurtengo programazioa datozen asteetan aurkeztuko dute.

## Iurretan hirigintza hitzarmena onartu dute Zaga fabrika botatzea ahalbidetzeko

Geratuko den orubean 108 etxe eraikiko dituzte; %40 babes publikokoak

A.B. IURRETA

Iurretako Udalak behin betiko onartu du Zaga fabrika izan zena botatzea ahalbidetuko duen hirigintza hitzarmena. Horri esker, udalak Bidebarrieta kalea birmoldatuko du. Izan ere, eraikina bota ondoren geratuko den orubean 108 etxebizitza eraikiko dituzte; horietatik %40 babes publikoko etxebizitzak izango dira (erdiak etxe babestuak izango dira, eta beste erdiak tasatutakoak). Gainerako etxebizitzak libreak izango dira. Gobernu taldeak hirigintza hitzarmenaren alde egin du eta EH Bildu eta PSE-EE abstenitu egin dira.



Zaga fabrika zaharraren jabeek eraikina eraisteko proiektua aurkeztuko dute. UDALA

### Bidebarrietan espazio gehiago

Udalak jakinarazi duenez, jabeek "konpromiso irmoa" hartu dute eraikina eraisteko proiektua aurkezteko eta lehenengo fasearen exekuzioari "beregala" ekiteko. Dagokion baimena jaso bezain laster ekingo diote lehenengo fase horri. "Bidebarrieta kaleari espazio gehiago emango dion lehenengo horma-tartea botako da", azaldu dute udal arduradunek. Eraikina osorik botatzen ez den bitartean —urbanizazio proiektuaren fase

orokorraren barruan dago hori— jabeek eraikina ezkutatzeko beharrezko neurriak hartuko dituztela gaineratu dute, "eta une oro segurtasun- eta osasungarritasun- baldintza egokiak" bermatuko dituztela.

"Zaga botatzea eta hirigintza hitzarmena onartzea mugari garrantzitsuak dira Iurretarentzat. Bidebarrietaren moduko gune estrategiko bat hiri-berrorenatzeaz gainera, iurretarrak herrian bizitzen jarraitzeko aukera zabaltzen dugu, etxebizitza babestuaren aldeko apustu

argi bategaz", jakinarazi du Oskar Koka alkateak.

EH Bilduk argitu duenez, gobernu taldeak "legeak derrigor-tuta" aurreikusi ditu babes ofizialeko etxeak Zagako orubean. Gainera, nabarmendu dutenez, hitzarmenak ez du jasotzen etxebizitza horiek alokairu publiko- ra edo alokairu babestura bideratuko diren. "Gazteek eta familia askok ezin dute etxebizitza erosi, eta horregaitik uste dugu administrazioek alokairu publikoaren aldeko apustu argia egin behar dutela", esan dute.

### Sonometroak ipintzea eta terrazak mugatzea proposatu dute Iurretan

A.B. IURRETA

Azken urteetan, Dantzari kaleko hainbat herritar kexu da kale horretako terrazadun tabernetan gauetan egoten den zarategaitik. Horren aurrean, proposamen hau egin diote udalari: Iurretako taberna eta jatetxeen terrazak mugatzea eta soinu neurtzeko sonometroak ipintzea. Euren ustez, auzotarren eta ostalaritzaren artean elkarbizitza "hobetzea" da helburua: "Neurriok zarata denbora errealean neurtzeko aukera emango lukete. Horrela, araudiak ezarritako mugak gailentzen direnean berehala jokatuko lirarteke, eta urteotan hainbat auzotarri eragingo kalteak murriztu".

### Andresa Landa eta Elixoste lotzen dituen kaleko lanak martxan Otxandion

A.B. OTXANDIO

Andresa Landa eta Elixoste ingurua lotzen dituen kalea eta Artekale kaleko kantoia konpondu eta berrizteko lanak hasi dituzte Otxandion aste honetan. Udalak 275.500 euroko inbertsioa egingo du lan hauetarako, jakinarazi dutenez, eta udazkenerako amaituta egotea aurreikusi dute. Udalak Estudios y Obras Rekalde enpresari esleitu zizkion lanak, lehiaketa publiko baten bitartez.

Udal arduradunek azaldu dutenez, herrigunean dauden kale bietako atontze lanekin "herritarren segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzea" lortu gura du udalak.



Andresa Landa eta Elixoste ingurua.

### Gastronomia eta musika ekitaldiak Zaldibarko jaietan



Egitarau osoa agendaren atalean.

E.H. ZALDIBAR

Zaldibartarrak herriko jaietan murgilduta dabilta eguen arratsaldetik, eta datozen orduetan hitzordu ugari dute zain. Gaur, barikua, kirol ekitaldiek eta rock musikak hartuko dute jaiaren erdigunea. Sukena, Streetwise, Xaukena Xauk eta DJ Josemari arduratuko dira gau giroa ipintzeaz. Bihar ekitaldi gastronomiko ugari izango dute: tortilla txapelketa, herri bazkaria zein sardina eta solomo jana Olea kalean. Domekan, kale antzerkia eta bertsolariak izango dituzte.

### Hauteskunde programa "bete barik" izatea egotzi diote EH Bilduri

E.H. ZALDIBAR

Zaldibarko EAJk EH Bildu kritikatu du, haren hauteskunde programako "hainbat proposamen" oraindino "gauzatu barik" dagoela edo "aurrerapen esanguratsurik barik" garatu dela iritzita. "Adibiderik argienetarikoa bat" EH Bilduk "kaleen garbiketa, mantentze-lanak, argiztapena eta margoketa hobetzeko hartu zuen konpromisoa da", jeltzaleen berbetan. Kritikatu duten beste proposamen bat Parkeko Hoteleko bigarren solairuan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzeari buruzkoa da. Proposamen hori "gauzatu barik" dagoela esan dute jeltzaleek, eta "udalerrian etxebizitza sozialaren eskaintza handitzeko beste inolako jarduketarik" ere ez dela egin gaineratu. Era berean, Berdintasun Kontseilua "geldirik" dagoela kritikatu dute, eta San Andreseko gizarte etxea garatzeari buruz ez dela "ezelako urratsik egin" kritikatu dute.



IURRETA  
LURRIK HERRI

## ENPRESEN ETA ESKOLEN ARTEKO TOPAKETA IREKIAK

### EGITARAUA

- 10:00-10:05 Aurkezpena.
- 10:05-10:15 Lanbide Heziketako DUAL sistema berria.
- 10:15-10:25 TKGUNE aurkezpena.
- 10:25-10:35 Instalazio Elektriko eta Automatikoaren eta Telekomunikazioen Gradu Bikoitzaren aurkezpena.
- 10:35-10:45 Argi abiadurako GPON autopista seguruak
- 10:45-11:00 Atsedena.
- 11:00-11:15 Televes Hospitality. 
- 11:15-11:30 EHKom sare publiko komunitarioak. 



UZTAILAK  
8



Iurreta LHilko areto nagusian  
Olaburu Kalea, 19  
48215 Iurreta, Bizkaia






## Gallastegi, hileko Anbotokidea

Azken hileotan Laturaleren esneki-sorta zotz egiten gabiltza Anbotokideen artean. Oraingoan, Jurgi Gallastegi Villa durangarra izan da hileko Anbotokidea.

Zuk ere sari paregabe hau irabazi gura duzu? Anbotokide bazara, bete inprimakia. Anbotokide ez bazara, lehenengo egin zaitez Anbotokide, eta ondoren parte hartu.



### DURANGALDEA ASTEON

## Esklerosi anizkoitza dutenen aldeko Busti Zaitetz ekimenak eskualdean

**DURANGALDEA** Beste behin ere, ehunka lagun bustiko dira esklerosi anizkoitza dutenen alde Durangaldean. Elorrioko, Abadiño, Durangoko eta Zornotzako igerilekuetan zenbait ekimen egingo dute uztaillaren 5ean.



Zornotzako Ganeko igerilekua.

## Argiztapen berria ipini dute Mañariko erabilera anitzeko gunean

**MAÑARIA** Mañariko Udalak erabilera anitzeko lokaleko argiteria berriztu du, espazioaren erabilereara hobeto egokitzeko. Sistema berriak argiaren intentsitatea erregulatzeko aukera ematen du; hau da, une bakoitzean argi gehiago edo gutxiago ematea ahalbidetzen du.

### GUTUNAK

#### Gutuna

**ISA HERRERO**  
ESKERRIK ASKO!

Ixiar, irakasle maitea, Gustatuko litzaidake ederki azaltzea zeintzuk diren nire eskerrak euskaraz. Tamalez, uste dut ezin dudala egin hain ondo, gaztelaniaz egingo nukeen moduan ez behintzat. Dena dela, saiatuko naiz.

"Erraza": honaino ez nintzateke helduko zu gabe. Nire ustez, hitz hauek ez dira nahikoak lagundu didazuna adierazteko euskara-bidean.

Hiru urte daramatzat zurekin. Hiru urte euskara maitatzen. Hiru urte jarraitzeko gogoia izaten. Hiru urte lortu ahalko nukeela jakiten.

Hiru urte zuk niregan konfiantza edukitzen.

Horrela bizi dut. Horrela sentitzen dut. Horrela gogoratuko dut. Ez dakizu nor izan zaren prozesu horietan niretzat. Nire inguruan denek dakite nor zaren zu eta nor zaren zu niretzat.

Nire irakasle eredia zara. Klasean gu ulertzeko modua miresten dut. Indibidualizateko trebetasuna ere bai. Baita pazientzia ere.

Eskerrik asko beti egoteagatik motibatuzko. Eskerrik asko euskara maitatzen irakasteagatik.

*Zein polita den euskara, ezta?*  
Laster arte.

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa / / Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

**Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).**

### POLITIKAN

## Plateruenarekin zertan dabilta?



**IMA GARRASTATXU**  
EH BILDU

Hainbat herritar hurbildu zaizkit galdera horrekin azken urteotan, eta, egia esan, nik ere kezka bera daukat. Zertan dabilta Plateruenarekin?

Durangoko euskalgintzatik sortutako proiektuak bere bidea bukatutzat eman zuen 2020ko abenduan. Osteen, udalean gure gain hartu genuen proiektuaren kudeaketa eta kultur mahai batek gidaturiko programazioa eta dinamizazioa abiatu genituen. Baina gorbernuak aldatzearekin batera, egungo gobernuak aurrekontua 0ra murriztu eta bertan behera utzi zuen bide hori.

Geroztik, ez dakigu ondo zertan ibili diren. Hiru urte pasatu dira eta urtero prentsaurreko berdina egin dute balizko obra batzuen inguruan: Plateruena berriztuko zutela aurrekontu milioidunarekin, baina urteak joan eta urteak etorri epeak eta datak atzeratzen joan dira. Informaziorik ez dute eman obren finantziazioaren inguruan, eta are gutxiago aurrera begirako kultur proiektuaren inguruan.

Guk eskua luzatu genien hasiera-hasieratik. Uste dugu proiektu berri honek, denboran iraun nahi badu, adostasun zabalak behar dituela, bai udaleko alderdi nagusien partetik eta baita kultur eragile eta elkarten partetik ere. Proiektuak gardentasuna eta bermeak behar ditu: nola sortu nahi dute tamaina honetako kultur proiektua bertoko kultur gileekin kontatu barik?

Hemendik eskaera udal gobernuari: jarri dezagun martxan, behingoz, Plateruena. Hiru urteko paraisi hau ezin daiteke gehiago luzatu.

## anboto

### ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 lurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902



### Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

### Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

### Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

### Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

### Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Maialen Zuazubiskar  
Gallastegi, Aritz Maldonado  
Zabala.

### Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

### Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

### Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibeli.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



### LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko  
Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Hezkuntza, Hizkuntza Politika  
eta Kultura Sailak diruz lagundua



# BURUARI KLIK!



## LABIRINTOA





# LERROEI JARRAITU




Lerroen gainetik marraztu

D D D D D D D



M M M M M M M

## MATEMATIKAK



MAGIA

# "Geroago eta gatzagoa da publikoa harritzea, baina emozioa beti egongo da hor"

TXEMA MUÑOZ MAGOA

Hamabost urteaz, Txema Muñoz magia maitemindu zen, eta harrezkero emanaldi mordo egin du mundu osoko 30 herrialde baino gehiagotan

Aritz Maldonado DURANGO

Txema Muñoz mago katalana (Bartzelona, 1989) *Gota* lanaren bira betean dago. Asteburua Frantzia pasatu eta gero, Durangaldera ailegatuko da. Eguaztenean, Berriz egin zuen magia eta klowna uztartzen dituen ikuskizuna, eta zapatuan Durango aurkeztuko du, Udagi zikloaren barruan. Benita Uribarena parkean izango da emanaldia, 20:00etan.

**30 herrialde baino gehiagotan egin dituzu magia emanaldiak. Truko batzuek hobeto funtzionatu dute herrialde batzuetan baino? Zelan topatzen duzu konplizitatea ikusleagaz?**

Emozioak berdinak dira munduko herrialde guztietan. Poza, tristezia, amorrua eta beldurra, esaterako, berdinak dira, baina erreakzionatzeko modua desberdina da, kultura kontuengaitik. Hemen gauza batzuek harritu egiten gaituzte, eta Estatu Batuetan beste modu batera erreakzionatzen dute, adibidez.

**Horrek bere eragina izango du sortzerakoan.**

Bai. Hain zuzen ere, erronka bat da, ez dakizulako ikusleek zelan erantzun duten. Orain, adibi-

dez, Frantzia egon gara eta ikusleek errespetu osoz jokatu dute, isil-isilik egon dira; aurrekoan, oster, Errumanian, publikoak oso modu desberdinean erreakzionatu zuten.

**Durangaldera zator orain. Zelakoa da euskal publikoa?**

Iaz Leioako Umore Azokan egon nintzen *Gota* aurkezten, eta publikoa itzela da. Euskal Herritik hainbat bider igaro zen bira iaz, eta horietariko batean, bero bolada handi batean, elizetan egin behar izan genituen emanaldiak; elizak babesleku klimatiko izan ziren guretzat (barrez). Euskal publikoa oso atsegina da.

**'Gota' prestatzeko, Montrealera bidaiatu zenuen. Zenbat lan du horrelako ikuskizun bat prestatzeko?**

Urte bi behar izan ditut dena prestatzeko. Lehenengo, Kanadara joan nintzen, Montrealera. Ondoren, dantzari batez lanean

egon nintzen. Leandre Riberak zuzendu du ikuskizuna; bera klowna da eta beragaz hainbat hilabete eman dut alderdi hori lantzen. Denbora horretan hainbat egonaldi ere egin dit ikuskizuna prestatzeko. Ondoren, entsegu horiek publikoagaz ere egin ditugu, ingurukoekin zein sektoreko profesionalekin, ikuskizuna balekoa dela ikusi arte. Urte bi joan dira horretan.

**Aktualitateko gai bat jorratu duzue 'Gota'-n: lehorrea.**

Bai. Ezinbestekoa zen gai hau jorratzea. Estatu osoko arazoa da, baina Katalunian oso larria da. Urtegiak hustu egin ziren, iturriak zabaldu, eta ia urik barrik geratu ginen. Horregaitik, horri buruz berba egitea erabaki genuen. Hortaz, hori zelan kontatu pentsatzea izan zen hurrengo pausoa. Ia urtebeteren ondoren, zuzendariak kubo edo ontzi bat erabiltzea proposatu zuen, eta hortik sortu genuen unibertso osoa. *Gotaren* unibertsoan ez dago urik, zeruan ez dago lainorik eta ontziagaz ura lortzen ahalegindu behar dugu. Prozesu luzea izan da, baina oso dibertigarria aldi berean.

**Max eta Feten sariak jaso dituzue.**



Txema Muñoz. T. M.

Bai. Sekulako ilusioa egin didate, aurretik inoiz ez dudalako jaso saririk hemen. Feten saria jasota, sorginkeria apurtzea lortu nuen. Eta handik hile batzuetara Max saria jaso nuen. Saririk garrantzitsuenetariko bat da eta esango nuke lehenengo aldia dela magia egiten duen norbaitek irabazten duena. Beraz, ilusio handia egin dit herrialde osoaren aurrean gure lantaldearen lana aitortzea.

**Hamabost urteaz hasi zinen magiaren munduan. Orduko ilusioari eusten diozu?**

**"Sekulako ilusioa egin dit Feten eta Max saria jasotzek; hemen jaso ditudan lehenengoak dira"**

Horrek goizero ohetik irteten laguntzen dit. Beste modu batean ikusten dut magia orain, baina magia maitatzen jarraitzen dut eta hasierako ilusioari eusten diot. Magiaren munduko kideren bat ikusten dudanean, zelan egin duen pentsatzen dut.

**Gaur egungo munduan badago lekurik magiarentzat?**

Baietz uste dut. Kontsumitzeko modua asko aldatu da; batez ere, denok dugulako mugikorra. Benetakoak ez diren gauzak erakusten dizkigute, eta benetakoa dena eta ez dena berezi ezinik ibiltzen gara. Geroago eta gatzagoa da publikoa harritzea, baina, esan dudanean, emozioak beti egongo dira hor. Pantailen bitartez gatzagoa da, baina magia zuzenean bizi behar da, kultura eta arte eszenikoak zuzenean bizi behar dira, hortxe azaltzen direlako benetako emozioak.



**OSATU ZURE PROFILA  
ETA IRABAZI!**

TOKIKOM LIGA

**egunean behin?**

**Anbotogaz  
jokatzeak  
saria dakar!**

Parte hartu EguneanBehin-eko Tokikom Ligan  
ANBOTO (DURANGALDEA) taldeagaz



MUSIKAIRE

## Elorrio hainbat kultur adierazpideren erakusleiho izango da uztailean zehar

Asteburuan izango dira Musikaire kultur zikloaren lehenengo emanaldi biak

A. M. ELORRIO

Gaur hasiko da Elorrioko Musikaire kultur jaialdia. Ohikoa den moduan, nazioarteko eta Euskal Herriko artista esanguratsuek Elorrioko hainbat txoko beteko dute euren proposamenekin. Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore pailazo ezagunak emango diote hasiera jaialdiari; *Zerua lapurtuko dute* ikuskizuna egingo dute plazan, 19:00etan.

Zapatuan doinu ilunak izango dira protagonista. Sara Zozaya donostiarraren soinu intimistek Arriola hartuko dute. Artista gipuzkoarra *Attä* lan berria aurkeztera dator. Kontzertua 20:00etan izango da.

### Lariz jauregian ere bai

Musikaireko emanaldiak uztail osoan zehar izango dira. Bigarren asteburuaren kasuan, Lariz jauregian izango dira ikuskizunak. Euskal Barrok Ensemble taldeak antzinako musika eta folk doinuak uztartuko ditu; biharamunean, uztailek 11, Ruper Ordozikak *Lurra ikutu barik* diskoa aurkeztuko du; domekan, Momi Maiga senegaldarrak Afrikako eta Europako doinu eta tradizioak



Lezoko (Gipuzkoa) saioa. KATXIPORRETA KOOP.

batuko ditu kora instrumentuaren bitartez.

Yllana konpainiak ohiko agertoki du Elorrio. Primal Brother segaz batera duen *Madness* ikuskizuna ikusteko aukera egongo da uztailean 17an, plazan. 18an, Robbin Kapsalisek Chicagoko doinueta oinarrituko den emanaldia egingo du, 22:30ean, plazan. Asteburu borobiltzeko, dantza garaikide ikuskizunak egongo dira plazan, 19:00etan hasita. Azken urteetan legez, dantza garaikideko proposamenik interesgarrien lagin bat ikusteko auke-

ra egongo da; aurren, Marcatek, Jessica Castellon eta Boris Orihuela bikoteak eta Rolando Salame konpainiak *Rhythm*, *Cuenta corrientes*, eta *El mundo atrás* ikuskizunak egingo dituzte, hurrenez hurren.

Amaitzeko, flamenkoa eta jazz uztartzen dituen *Antigua fusión con miel y canela* ikuskizuna, jazz garaikidea jorratzen duen Ife Ogunjobi, eta Elkano Browning Crean hirukotearen kontzertuak egongo dira Musikairen. Eurria eginez gero, ikuskizun guztiak Arriola antzokian egingo dira.



Areitio, artxiboko irudi batean.

BERTSOLARITZA

## Juan Mari Areitiori esker oneko ekitaldia egingo diote irailean

A. B. IURRETA

Juan Mari Areitio bertsolari iurretarrari esker ona erakusteko, Durangaldeko Bertso Eskolak ekitaldia antolatu du. Bertan, iurretarraren ibilbidea gogoratuko dute, eta, ondoren, mahaiaren bueltan jesarri eta bazkaria egingo dute. Irailaren 19an izango da esker oneko ekitaldia. Omenaldian, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Miren Amuriza, Onintza Enbeita, Alaitz Areitio eta Xabier Amuriza bertsolariek parte hartuko dute. Durangaldeko bertso eskolako kideek ere egingo dute bertsoan, eta, horiez gainera, Gorka Valdes eta Hekthor Folk musikariek ere euren alea ipiniko

dutela aurreratu dute bertso eskolako kideek.

Esker oneko ekitaldia plazan izango da, 12:30ean. Osteko bazkaria Montoste elkartean egingo dute, eta izena emateko aukera zabalik dago jadanik. Interesa dutenek Gauargi tabernara joan beharko dute horretarako.

### laz, Gerediagan

Iurretakoa ez da azkenaldian Areitio jaso duen omenaldi bakarra. Bertsolari ezagunak omenaldi hunkigarria jaso zuen Gerediagako iazko jaietan, urtero egiten den bertso saioaren aurretik. Plaza horretan hainbat urtez bertsoan aritutakoa da Areitio.

GAI LIBREAN



AINHOA ZABARTE NARBAIZA  
BEHARGINA

## Etzi

*Gauzatxoak* da Whatsapean nire buruarekin jarduteko sortuta dudan taldearen izena. Oharrak, irudi, artikulua interesgarriak eta egin beharren zerrenda amaigabeak elkartzen dira bertan. Azken horiek leku majoa hartzen dute, eta normalean ez dira hutsetik hasten. Aurretik dagoen lista hartu, kopia-pega egin, zeregin berriak gehitu, bat edo beste ezabatu eta bidali. Ttak, berritoe ere, hortxe dago zerrenda.

Oro har, lana, errekaduak, militantzia, norberaren kontuak, opariak eta hamaika eginbehar pilatzen dira zerrendan: urliaren urtebetetze erregalua, sandiari bidali beharreko mezuaren abisua eta berendiarekin geratzeko betebeharra. Horiek lehenak, atzetik: kartelaren diseinua, telefono konpainia aldatzea, etxean dauden hauts bolak kentzea, apunteak ordenatzea, dentistarenerako hitzordua hartzea eta artelan itxura

hartua duten leihoak garbitzea. Edozer horien arteko harremana, bakarra, zereginaren jabea: zu zeu.

Tartean, badaude azkar desagertzen direnak; zorionez, gainerakoekin batzerik ez duten betebeharrak; gustukoak, egiteko errazak, arinak, atseginak. Aldiz, badira zerrenda betikotzen dutenak: astunak, gogorrak, gorrotatzerainokoak. Zama bihurtzen diren horiek, eta gero eta pisu handiagoa hartzen dutenak. Burmuineko

**"Zama bihurtzen diren horiek, eta gero eta pisu handiagoa hartzen dutenak"**

atzeko paretan iltzatuta geratzen diren horiek, euli nazkante bat legez.

Prokrastinatzea deitzen zaio horri, gizakiaren joera irrazionala diote. Izan ere, jakin badakigu egin egin behar dugula, baina nahiago atzeratu. Nahiz eta jakitun izan albo kalteak biziko ditugula. Gaupasaren bat lana bukatzeko, plan bati uko egin behar izatea, txantxarra eta mina eta erdipurdiko lan baten entrega, adibidez.

Latinetik dator hitza, *procastinare*. Ondo zekiten horiek zein zen, eta izango zen, gizaki askoren joera; ezen, hori gutxi ez, eta *perendinare*, perendinatu ere hiztegitatu zutela. Biharko ez, gauzak etziraiko uztea, hain zuzen.

Osasun mentalaren alde, nahiko nuke beste ohitura batzuk hartu; hala, edozeinen gomendioren zain geratzen naiz. Bitartean, perendinatzen jarraituko dut.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHENAGO.  
946 232 523 / agenda@anboto.org

## ZINEMA

ABADIÑO  
(AIRE ZABALEAN)

GEREDIAGA AUZOAN

**Gaua**  
Barikua 3: 22:00.

## DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

**Minions & Monsters**  
Barikua 3: 18:00, 20:30.  
Zapatua 4: 17:15, 19:30, 21:30.

Domeka 5: 17:15, 19:30.  
Astelehena 6: 18:00, 20:15.

Martitzena 7: 18:00, 20:15.

Eguaztena 8: 19:00.

**La muerte de Robin Hood**  
Barikua 3: 18:00, 20:30.  
Zapatua 4: 18:30, 21:00.  
Domeka 5: 19:30.

Astelehena 6: 17:45, 20:15.

Martitzena 7: 17:45, 20:15.

Eguaztena 8: 19:00.

**Cosas que no olvidaré**  
Barikua 3: 20:30.  
Zapatua 4: 18:30.

Domeka 5: 19:30.  
Astelehena 6: 17:45.

Martitzena 7: 17:45.

**9 lunas**  
Barikua 3: 18:00.  
Zapatua 4: 21:00.

Domeka 5: 17:45.  
Astelehena 6: 20:15.

Martitzena 7: 20:15.

**Toy Story (3D)**  
Zapatua 4: 16:30.

Domeka 5: 16:45.

**Tosca Oh!pera summer**  
Eguaztena 8: 19:00.

## ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

**Viaje al país de los blancos**  
Barikua 3: 20:00.  
Zapatua 4: 17:00, 20:00.

Domeka 5: 17:00, 20:00.  
Astelehena 6: 20:15.



## BARIKUA 3

• **ABADIÑO Sanmartinak**  
Donien Atxa jasotzea, 19:00etan. Ondoren, maleta siku. Gazteluan.

• **DURANGO 'Ikusi makusi, Beitu'** Erakusketa. Ezkurdi aretoan, uztailaren 5era arte.

• **DURANGO 'Jorge Oteiza. Espazioaren hutsunea'** Erakusketa. Arte eta Historia Museoa, abuztuaren 30era bitartean.

• **ELORRIO 'Zerua lapurtu'** Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loregaz umeentzako ikuskizuna. Plazan, 19:00etan.

• **IURRETA Sanmartinak**  
Donien Atxa jasotzea Amatzako soinuariet girotuta, 18:00etan.

• **MAÑARIA 'Askondoko leize-hartza'** Aldi baterako erakusketa berria. Hontza Museoa.

• **ZORNOTZA Boroako Aste Nagusia** Tortilla txapelketa, 20:00etan.

• **Umeen bolo txapelketa**, 21:00etan.

• **Helduen bolo txapelketa**, 22:00etan.

• **Erromeria Joxe Angel** Elizaldegaz, 23:00etan. Boroan.

## ZAPATUA 4

• **ABADIÑO Sanmartinak**  
Puzgarria eta zezen mekanikoa (11:00-14:00). Meza, 12:00etan. Ondoren, dantzariak eta luntxa.

• **Onintza Enbeita eta Aitor Bizkarra** bertsolariak, 13:00etan.

• **Auzo bazkaria**, 14:30ean. Gazta lehiaketa, 15:30ean. Partxis lehiaketa, 16:00etan.

• **DJ Txululu**, 16:00etatik 21:00etara. Madiber Magoaren

ikuskizuna, 18:00etan. Patata tortilla txapelketa tortillen aurkezpena, 20:30ean. Afalostean, bingoa. Gazteluan.

• **BERRIZ San Pedro Txiki Eguna** Donien Atxa jasotzea, 19:30ean. Ondoren, auzo afaria. San Pedro Txikin.

• **DURANGO 'Gota'** Txema Muñozen ikuskizuna. Benita Uribarrena parkean (euria bada, Landako Gunean), 20:00etan.

• **DURANGO Naiz Market** Zumalakarregi kalean, 10:30etik 20:30era.

• **ELORRIO Balendin Berrio-Otxoa Eguna** Txistularien kalejira herrigunean, 10:00etan.

• **Meza nagusia** Basilikaren Koruaren saioagaz, Basilikan, 12:00etan.

• **Luntxa, Berrio-Otxoa** kalean, eguerdian. Berrio-Otxoa abesbatza, Santa Anako kapera, 20:00etan.

• **ELORRIO Sara Sozaya** Kontzertua. Arriola antzokian, 20:00etan.

• **GARAI Buruarinen tailerra** Familia osoarentzat, Trumoitte elkarteak antolatuta. Frontoian, 10:00etan.

• **IURRETA Oletara bizikleta irteera**. Txirindulari elkarteak antolatuta. Iurretan, 10:30ean.

• **IURRETA Sanmartinak** Trikitilarien kalejira, 18:00etan. Meza, 12:00etan. Ondoren, luntxa.

• **Auzoko dantzariak**, 12:30ean. Herri bazkaria, 15:00etan. Ondoren, karta lehiaketa eta jolasak. Amatzan.

• **ZORNOTZA Boroako Aste Nagusia** Jolasak, 12:00etan. Paella txapelketa, 14:00etan. Mus txapelketa, 17:00etan. Asto probak, 22:00etan. Kittu, gauerdian. Boroan.

## DOMEKA 5

• **ABADIÑO Busti zaitez!** Esklerosi Anizkoitza dutenen aldeko ekimena, igerilekuan, goizean.

## ZALDIBARKO JAIAK

## 3 UZTAILA

• **08:30** Familientzako mendi irteera udaletxeko plazan hasita. Amaitzean, mokadua egongo da eskoletako pilotalekuan.

• **09:00-13:00** Umeentzako ginkana kiroldegian.

• **12:30** Herri kirolak Zaldia plazan, aizkolariak eta Iparraldeko jokoak.

• **12:00** Bits festa udaletxeko plazan.

• **18:00-20:00** Arku-tiroa; punteriazko jokoak ume eta helduentzat. Olazarko galerian.

• **18:00** Pilota partiduak. XXXVIII etorkizuneko Olazar txapelketa. Finalen errebantxa; lehenengo partidua. BANAKA 4 eta erdikoaren barruan; bigarren partidua, BINAKA.

• **19:00** ELEKTROTXUFLA elektrotxaranga, txosnagunetik hasita.

• **20:00-20:30** Arku-tiroaren modalitate desberdinen erakusketa.

• **22:30** Kontzertuak txosnagunean:  
• *Sukena*  
• *Streetwise*  
• *Xaukena xauk*  
• **23:00** Dantzaldia: DJ JOSE MARI *Euskal Herria* kalean, udaletxeko plazaren ondoan.

## 4 UZTAILA

• **10:30** 3X3 Haur saskibalo txapelketa kiroldegian.

• **11:00** JAIZALE Durangaldeko txistulari elkartearen kalejira.

• **12:00** Tortilla txapelketa eskolako aterpean.

• **14:30** Herri bazkaria txosnagunean.

• **16:00** NEBAR-en eskutik kontzertu akustikoa txosnagunean.

• **17:00** 3X3 saskibalo txapelketa kiroldegian.

• **19:00** Afari-merienda Olea kalean, solomoa eta sardinak.

• **19:00** GOTX elektrotxaranga, txosnagunetik hasita.  
• **23:00** ALTXAPORRU taldeagaz erromeria txosnagunean.  
• **23:00** DJ CANIJO Olea kalean.

• **BERRIZ San Pedro Txiki Eguna** Meza, 11:00etan. San Lorenzo Dantza Taldea. Herri kirolen erakustaldia: Abendibar-Maiztegi familia. San Pedro Txikin.

• **DURANGO Argazki Rallya** Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatutako rallya. Lehenengoak 250 euro irabaziko ditu, 2.ak 200 euro eta 3.ak 150 euro. Izen ematea Ezkurdin, 08:30etik 09:30era. (Oinarriak: [hhargazki.eus](http://hhargazki.eus)).

• **DURANGO Busti zaitez!** Esklerosi Anizkoitzaren aldeko ekimena, Tabirako igerilekuan (11:30-18:30)

• **ELORRIO Busti zaitez!** Esklerosi Anizkoitzaren aldeko ekimena, Elizaldeko igerilekuan (11:00-18:00).

• **IURRETA Arrituganara bizikleta irteera**. Txirindulari elkarteak antolatuta. Iurretan, 08:30ean.

• **ZORNOTZA Boroako Aste Nagusia** Triki poteoa, 10:00etan.

Bazkaria, 14:30ean. Bingoa, 18:00etan. Errifren zozketa, 19:00etan. Boroan.

• **ZORNOTZA Enrike Renteria XVIII. Pintura Lehiaketa** Izena ematea Zelaieta Zentroko hallean 09:00etatik 11:00etara. Teknika eta neurriak libreak izango dira. Lanen aurkezpena, 16:00etatik 17:00etara.

• **ZORNOTZA Busti zaitez!** Esklerosi Anizkoitzaren aldeko ekimena, Ganeko igerilekuan (11:00-18:30).

## EGUENA 9

• **DURANGO 'Homenaje a Arriaga'** Botxo Boogies taldearen musika emanaldia. Plateruenero terrazan, 20:00etan.

• **ELORRIO Quitapenas colectiva** Erritmo tropikal eta karibearrak. Portalekuan, 20:00etan.



MARKELIÑE

**ZALDIBAR Antzerkia** Markeliñe konpainiak *Artilusio* antzezlanaz plazaratuko du herriko jaien barruan. Udaletxeko plazan, uztailaren 5ean, 20:30ean.

## 5 UZTAILA

• **11:00** JAIZALE Durangaldeko txistulari elkartearen kalejira.

• **11:00-13:00** eta **16:00-19:00** Umeen jolas parkea eskolako patioan (euria eginez gero kiroldegian).

• **11:00** Zaldibarko Korralak mezan abestuko du *San Andres elizan*, eta ondoren kontzertua emango du.

• **12:00** Euskal dantzak Zaldia plazan.

• **19:00** Bertso saioa, Zaldia plazan: Xabat Illarregi, Aitor Etxebarriazarraga, Saioa Alkaiza eta Unai Iturriaga. Gai-jartzailea: Leire Vargas.

• **20:30** MARKELIÑE mimo taldearen 'ARTILUSIO' kale antzerkia, udaletxeko plazan (euria eginez gero, Olazar pilotalekuan).

• **22:00** Jaietako argazkien emanaldia kontzertuen eszenatokian.

• **23:00** Su artifizialak.

## 9 UZTAILA

• **19:00** Argazki rallyaren emanaldia eta sari banaketa liburutegi zaharrean.

## 11 UZTAILA

• **IV.** Zaldutrail mendi lasterketa.  
• **09:30** lasterketa luzearen hasiera. **09:45** lasterketa laburraren hasiera.

ERRUGBIA

# "Gure erronka nagusietariko bat harrobiko talentua Durango Rugby Taldean geratzea da"

ZORION ZABALA OTADUY DURANGO RUGBY TALDEKO PRESIDENTEA

DRTko presidenteak zuzendaritza taldeko lehenengo urtearen balantzea egin du. Egoera ekonomikoa sendotu eta hurrengo urteerako kirol plana diseinatu dute

**Joseba Derteano** DURANGO

Hile honetan urtebete beteko da Durango Rugby Taldeko zuzendaritza berriak klubaren gidaritza hartu zuenetik. Zorion Zabala buru duen taldeak hainbat helburu ipini zuen mahai gainean. Lehenengo urteko balantzea egin eta aurrera begirako erronkak azaldu ditu.

**Urtebete honen zer balorazio egiten duzu?**

Balantzea positiboa da. Zuzendaritzan sartzea esperientzia berria izan zen guretzat, nahiz eta zuzendaritzako kide batzuek aurreko urteetan ere lagundu izan duten klubaren kudeaketan. Hasieran, denbora apur bat behar izan genuen egokitzeko, apur bat urduri ere bageunden, baina lanean hasi ahala esperientzia hartu dugu, lasaitasuna ere bai, eta esango nuke gauzak norabide onean doazela. Denboraldia amaituta eta bazkideen batzurrean balantzea egin ondoren, oso egokitzat jo dugu urtea, batez ere kontuan hartuta gure lehenengoa dela.

**Klubari "beste bultzada bat" eman gura zenioten. Zertan nabaritzen da bultzada hori?**

Zuzendaritzan gaudenatariko asko klubeko parte izan gara urteetan, dela entrenatzaile, dela jokalaria, dela beste jardueraren batean. Alde batetik, jende baten partetik desanimo moduko bat arnasten zela sentitzen genuen eta egoera horri buelta ematea da gure helburua. Eta, orain arte behintzat, jendearen partetik jaso dugun feedbacka oso ona izan da. Hainbatek esan digute eskertzen dutela egiten gabiltzan lana; beraz, alde horretatik pozik gaude eta gauzak ondo egiten gabiltzan seinale da.

**Hainbat lan ildo jarri zenuten. Zeinetan sentitzen duzu eman duzuek aurrerapausorik handiena?**

Aurrerapausorik handiena arlo ekonomikoa eman dugula esango nuke. Alderdi ekonomikoagaz bagenuen kezka bat, ustea geneukalako klubak zor txikiren bat izan zezakeela. Ez genekien zer aurkituko genuen, eta, beraz, hasieran egoera ekonomikoa aztertzen zentratu ginen ehuneko ehunean.

**Eta zelako egoera aurkitu zenuten?**

Tira, ez zen egoera larri-larri bat. Kontuan hartu behar da pandemiaren sasoiaren DRTren taberna itxita egon zela eta hor diru iturri bat etenda egon zela. Obra batzuk ere egin ziren eta denboran zehar zor batzuk pilatzen joan ziren; jakina, ezin zara honi edo hari gauzak eskatzera joan, zorretan bazaude. Orduan, beste ezeren aurretik zor txiki horiek ordaintzen eta egoera ekonomikoa saneatzen aritu gara; baita kluberako babesle berriak bilatzen ere, urte batzuetan babesle kopuru berdintsuagaz geunden eta. Klubagaz edo klubeko jendeagaz erlazioa duen herriko hainbat enpresa txiki batu zaigu eta oso pozik eta esker oneko gaude. Behin alderdi hori landuta, hurrengo urteetara begira kirol plana egituratu dugu.

**Hurrengo urteerako kirol plana aipatu duzu. Zeintzuk dira plan horren ardatzak?**

Gure helburua da klubak ahalik eta mailarik handienera lehiatzea. Badakigu ez dela erraza, inguruan klub indartsuak ditugulako; Bilbo, Getxo eta

Gernika, besteak beste. Guk harrobian prestatzen ditugun jokalaririk onenek sarritan haien eskaintzak jasotzen dituzte eta joan egiten dira. Eta ulertzen dut. Jokalariak lehiakorak dira eta ahalik eta mailarik handienera jokatu gura dute. Beti esaten da jokalaria bakar batek ez duela partidurik irabazten, eta egia da, taldea da inportanteena, baina jokalariek ere diferentziak markatzen dituzte. Esaterako, hor dugu Antxon Iriondo. Bost urte eman ditu Ordizian. Sekulako kalitatea duen jokalaria da eta aurten, printzipioz, Durangora bueltatuko da. Unax Carballo eta Jon Gerrikabeitia dira beste adibide bi. Gazte mailan Gernika Rugby Taldera joan ziren. Unax 20 urtez azpiko munduko txapelketa jokatzen dabil orain. Emakumeetan beste hainbeste gertatzen da. Getxora joandako Naroa Azpitarre eta Ane Diez dira adibide bi. Beste izen batzuk ere badaude. Denek sekulako maila dute.

Beraz, lehenengo pausoa kirol proiektu sendo bat eraikitzea da, harrobiko talentua DRTn geratzeko edo etorkizunean bueltatzeko motibazioa izan dezan. Senior taldeak oso gazteak dira, bai emakumezkoena bai gizonzkoena, eta uste dugu datozen urteetan esperientzia izan ahalaz hazteko tarteak dutela. Ez dugu derrigorrez mailaz igotzea helburu, baina bai taldearen maila hobetzea, eta, horren ondorioz, harrobiko talentua etxean mantentzea. Hori lortuz gero, klubaren kirol egitura ere askoz egonkorragoa izango da.

**Eta zelan lortzen da talentua etxean geratzea?**

Badakigu ezin ditugula jokalaria diruagaz konbentzitu; hori ez litzateke bideragarria guretzat.



Zabalak 20 urtetik gora daramatza klubean.



Zorion Zabala Arripausuetako errugbi zelaian. DRT

Horregaitik, kirol proiektu sendo bat eskaini behar dugu, baina baita herri proiektu bat ere. Durangon zure lagunekin, betidanik ezagutzen duzun jendeagaz eta talde giro onean lehiatzeko aukera duzu. Errugbia ez da zelaira mugatzen: badu osagai sozial oso indartsua. Partidua amaitu ondoren herrian ibiltzen zarenean jendeak emaitzagaitik galdetzen dizu, zoriendu egiten zaitu eta klubaren parte sentitzen zara. Herri bateko taldean jokatzeak lotura berezi hori ematen du, eta horixe da gure indarguneatariko bat.

**Elorrio Rugby Taldeak denboraldi bikaina egin du. Zelan ikusten duzu haien lana? Eta gaur egun zelakoa da klub bien arteko hartu-eman? Goi mailako denboraldia egin dute. Urteak daramatzate Eus-**

kadiko txapelketetan goian lehiatzen, eta aurten gizonzkoek zein emakumezkoek titulua irabazi dute. Gaur egun hartu-eman ona dugu eta elkarlanerako prest gaude. Hartu-emanetan gabiltza, harrobiko talde batzuetan batera aritzeko aukerak aztertzen. **Arlo pertsonalean, zelan bizi izan duzu lehenengo urte hau DRTko presidente karguan?**

Presidentea neu naizen arren, hasieratik argi izan dugu talde legez lan egingo genuela, ardurak banatuta. Alde horretatik, lantalde arduratsua dugu. Badaude egun gogorak, jakina, baina 20 urtean klubak eman didan guztia zelanbait bueltan emateko modu bat da hau niretzat. Nire nahia da etorkizuneko jokalariek nik bizi izan dudan guztia bizitzeko aukera izatea.



Gonzalo Diaz, joan zen asteburuko txapelketan.

## SALBAMENDUA

## Gonzalo Diazek urrezko hiru domina irabazi ditu Espainiako txapelketan

J.D. DURANGO

Joan zen asteburuan Salbamen-duko eta Sokorrismoko Espainiako Txapelketa lehiatu zen Laredon (Kantabria) eta Gonzalo Diaz durangarrak urrezko hiru domina irabazi zituen 45etik 49 urtera arteko kategorian. Igeriketa-surf, taula eta ocean modalitateetan nagusitu zen. Durangarrak azaldu duenez, emaitzak aurten egindako prestaketaren fruitu dira. "Iaz baino dezente gehiago entrenatu naiz", adierazi du. Bereziki pozik agertu da ocean proban lortutako emaitzagaz; izan ere, modalitate horretako surf-skia izan da beti bere "puntutarik ahulenetarikoa". Iaz eski

berriagaz lehiatu zen, eta "zailtasunak" izan zituen "egokitze-ko"; aurten, "erosoago" aritu dela nabarmendu du. Eguraldiak ere eragina izan zuen probetan. Lehiakideek olatu gehiago espero zuten, baina itsasoa bare egon zen. Horrek proben ezagarrak aldatu zituen, arraun eta igeri gehiago egin behar izan baitzuten. Diazek aitortu duenez, olatuak dituzten hondartzak hobeto egokitzen zaizkio, normalean Lagan eta olatuak egoten diren antzerako hondartzetan entrenatzen delako.

Apiril amaieran, Diazek beste domina bi irabazi zituen Valladoliden lehiatutako igerilekuko Espainiako txapelketan.

## PILOTA

## Lau eta erdiko eta binakako pilota partiduak ikusgai Zaldibarren

J.D. ZALDIBAR

Zaldibarko jaien barruan, afizionatu mailako partidu bi ikusteko aukera dago barikuan, 18:00etan, Olazar pilotalekuan. Zaldua Pelota Taldeak antolatuta, lau eta erdiko eta binakako partidu bana izango da.

Lau eta erdiko protagonista bat Faben Ituarte da. Aurrelari atxondarrak behin baino gehiagotan erakutsi du kaiolan jokatzeke duen abilezia. Esaterako, iaz Lesakako San Fermin torneoa irabazi zuen. Aurkari izango duen Joanes Cestau ere espezialista da modalitate horretan; azkeneko Olazar txapelketan berak jantzi zuen txapela. Ondoren, binakako partidua hasiko da. Muruak eta Cansecok osatuko bikoteak, gerriko gorritz, Etxeberria-Uriarte bikotea izango du aurkari.



Olazar pilotalekua.



Jon Castrillo partidu batean aginduak ematen. SDAMOREBIETA

## FUTBOLA

## Jon Castrillo izango da Amorebietaren entrenatzailea datorren denboraldian

J.D. ZORNOTZA

Jon Castrillo Fuentes (Berango, 1995) izango da SD Amorebietaren lehenengo taldeko entrenatzailea 2026-2027 denboraldian, klubak asteon iragarri duenez. Castrillo Aitor Zulaikaren ordezkari hautatu dute. Entrenatzaile berria Hirugarren Federazioko SD Leioa taldeagaz lan ona egitetik dator. Izan ere, azken denboraldian pauso bakarrera geratu da iagoera lortzeko.

## Birritan kanporaketetan

Castrillo 2023-2024 denboraldian erdialdean igo zen Sarriena lehenengo taldera, Jubenil A taldetik. Une horretan, taldea jaitziera postuetatik oso gertu

zegoen, eta azkenean sailkapeneko erdi-goiko aldean amaitu zuen liga. Ondorengo denboraldi bietan, taldea Bigarren Federaziora igotzeko kanporaketetan sartzea lortu zuen; hirugarren postuan geratu zen 2024-2025 denboraldian, eta bigarren postuan 2025-2026an. Azken horretan igoera lortzetik gertu geratu zen. Fase autonomikoan Touring eta Derioren aurkako kanporaketak gainditu zituen eta finalerako sailkatu zen. Hala ere, ezin izan zuten Albaceteren bigarren taldea gainditu azken kanporaketan. Etxean jokatutako joaneko neurketan 1-0 irabazi zuten arren, Carlos Belmonte zelaian 2-0 galdu zuten.

## JOKALDIA

UNAI ZAMALLOA ZUBIAURRE  
SASKIBALDIA

## Udan, datorrenaren zain

Denboraldia amaituta eta uda bete-betean sartuta, talde guztiak datorren ikasturteari begira hasi dira lanean.

ACBn, Surne Bilbao Basketek denboraldi bikaina osatu du: bigarren jarraian FIBA Europe Cup txapelketa irabazi du, ACB ligan zazpigarren amaitu du eta kanporaketetarako sailkatu da. Azkenean, gerora txapeldun geratuko zen Valencia Basketen aurka agurtu zuen denboraldia. Datorren denboraldiari begira ere etxeko lanak aurreratuta ditu. Oinarri sendoari eutsita, lau fitxaketa lotu ditu dagoeneko: Adam Somogyi eta Dan Duscak joko-antolatzaileak, Nate Darling hegalekoa eta Bastien Vautier pibot sendoa. Urtero bezala, txalotzekoa da Rafa Pueyok eta Jaume Ponsarnauk egiten duten lana. Bestalde, Kosner Baskonia ere hizpide da azken egunotan. Momentuz daki-

**"Surne Bilbaok denboraldi bikaina osatu du eta datorren denboraldiari begira etxeko lanak aurreratuta ditu"**

**"Baskonia hizpide da azken egunotan. Momentuz dakigunarekin, Paolo Galbiatik gidatuko du taldea"**

gunarekin, Paolo Galbiatik zuzenduko du taldea datorren denboraldian ere. Momentuz diot Galbiati Bartzelonarekin lotzen duten zurrumurruak daudelako. Lehen fitxaketa ere egin du: Dwayne Stewart Jr. joko-antolatzailea, kalitate eta sendotasun handiko jokalaria.

Emakumezkoen Liga Endesan, Gernika KESBk aurrera egingo du datorren denboraldian ere, nahiz eta oraingoz babesle nagusirik ez izan. Denboraldi zaila aurreikusten da, baina Gernikan ez dira inoiz falta izan lana eta ilusioa.

Gure inguruan, Tabirakoko gizonzkoek FEBeko Hirugarren Mailan jokatuko dute, aurtengo denboraldi bikaina oinarri hartuta. Lehen helburua mailari eustea izango da. Emakumezkoek, berriz, aurtengoa hobetu eta iagoera fasean sartzea izango dute erronka.

Aurrera eta uda ona izan!

## TXOKOTIK ZABALERA

## UNAI GAZTELUMENDI

# UDA IRISTEKO PRESA



## GUARDIAKO BOTIKAK

## UZTAILAK 3, BARIKUA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

## UZTAILAK 4, ZAPATUA

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

## UZTAILAK 5, DOMEKA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

## UZTAILAK 6, ASTELEHENA

09:00-09:00

De Diego, Intxaurren 22. - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

## UZTAILAK 7, MARTITZENA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muroetatorre 2C - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

## UZTAILAK 8, EGUAZTENA

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

## UZTAILAK 9, EGUENA

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: [www.anboto.org/botikak](http://www.anboto.org/botikak)

## ZORION AGURRAK

## GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com)

☎ 661 401 400

f Gozatu Gozotegia

@ gozatugozotegia



Zorionak Aunitz (1069.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu.  
Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.



## Inhar

Uztailaren 1ean, 12 urte.  
Zorionak, Inhartxu, mutil handi!  
12 urte bete dauzela etxeko txikitxuek... Musu erraldoi bat, maifia. Asko maite zaittugu!

## Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta [Anboto.org/zorionagurrak](http://Anboto.org/zorionagurrak) helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaitetz Anbotoren ordezkaritzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#SAL DUE NAK



**urkiOil**  
E.S. Otxandio · E.S. Izurtza

UrkiOil gasolindegia ibilgailuetarako aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA 📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

# INMOBILIARIAK

 <p>ETXETXO INMOBILIARIA F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO www.inmoetxetxo.com</p>	 <p>AMBOTO INMOBILIARIA Sanagustinalde, 4 - 1. ezk. - 48200 DURANGO</p>	 <p>ISD Inmobiliaria del Duranguesado Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666 www.inmoduranguesado.com inmoduranguesado@gmail.com</p>	 <p>Fernando Uribe Barrerenkalea, 15 beheko - DURANGO Tel.: 946 816 423 - www.fernandouribe.es</p>
 <p>C.E.E.= F. 355.000 €</p>	<p><b>ETXEBIZITZAK SALGAI</b></p> <p><b>DURANGO</b> <b>ZUMALAKARREGI</b> 235 m2. Durango erdigunean. Zoragarria.</p> <p><b>MONTEBIDEO</b> Berriztatuko. 175m2, 6. solairuan. Balkoia. 60 m2, 7. solairuan. Ikuspegi ederrak.</p> <p><b>MONTEBIDEO</b> 150 m2. 4 logela. Handia. 2 kotxerentzako garaje itxia.</p> <p><b>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA</b> 180 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. 3 balkoi. Berriztatuko.</p> <p><b>FRANTZISKO IBARRA</b> 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia.</p> <p><b>GOIENKALEA</b> 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia.</p> <p><b>GOIENKALEA</b> 2. solairua. Halla, 3 logela, sukaldea, 2 komun eta egongela. Bizitzin sartzeko moduan.</p> <p><b>BARRENKALEA</b> Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.</p>	 <p>C. E. E. Bidean. 255.000€</p>	<p><b>BERRIAK IURRETA</b> <b>BIXENTE KAPANAGA:</b> 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. 156.500 €/ E.E.Z=E</p> <p><b>DURANGO</b> <b>ANDRA MARI:</b> 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 €/ E.E.Z=E igogailu obra erosleean gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €.</p> <p><b>BARRENKALEA:</b> Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 €/ E.E.Z=F</p> <p><b>GOIENKALE KALEA:</b> Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 €/ E.E.Z=F</p> <p><b>SAN INAZIO AUZUNEA:</b> 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 €/ E.E.Z=A</p> <p><b>ZABALE KALEA:</b> 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua eta 2 kotxerentzako garajea. 375.000 €/ E.E.Z=E</p>
 <p>C.E.E= E 244.000 €</p>	<p><b>LURSAILAK SALGAI</b> <b>URRUTXUA</b> 9 hektareko 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.</p> <p><b>BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI</b> <b>IURRETA</b> Fauste auzoa. Bifamiliarra. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua. Prezio ezin hobea.</p> <p><b>IURRETA</b> Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatuko.</p> <p><b>ABADIÑO</b> Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.</p> <p><b>BERRIZ</b> Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.</p> <p><b>MAÑARIA</b> 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.</p>	 <p>C. E. E. E. 335.000€</p>	<p><b>ABADIÑO</b> <b>DENDARIKOA:</b> Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €.</p> <p><b>ATXONDO</b> <b>ARTEKALEA, 13:</b> Konpontzeko baserria lursailarekin. 300.000 €.</p>
 <p>C.E.E. =F 255.000 €</p>	<p><b>BULEGOAK ALOKAIRUAN</b></p> <p><b>ABADIÑO</b> 30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.</p> <p><b>DURANGO</b> <b>ERMODO KALEAN</b> 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.</p> <p><b>LOKALAK ALOKAIRUAN</b> <b>DURANGO</b> Lekker taberna alokatzen da. 100 m2. 40 m2-ko jantokia, sukaldea, komunak. Zure negozioari aproposa.</p> <p><b>ALDE ZAHARREAN,</b> hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.</p> <p><b>LOKAL INDUSTRIALA SALGAI</b> <b>MATIENA</b> 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.</p> <p><b>ELORRIO</b> 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.</p>	 <p>C.E.E.=E 164.000€</p>	<p><b>BERRIZ</b> <b>BIDEGAIN KALEA:</b> Duplexa. 3 logela, sukaldea, 2 egongela eta 3 komun. Terraza. Igogailua. 2 garaje eta trastelekua. 450.000 €/ E.E.Z=Bidean</p> <p><b>MURGOITIO AUZO:</b> Berreraikitako baserria lurzoruagaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €.</p> <p><b>GARAI</b> <b>MOMOITIO AUZO:</b> Etxebizitza eraikitako lursailak. Aukera ezberdinak.</p>
 <p>C.E.E= E 319.500 €</p>	<p><b>LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI</b> <b>BERRIZ</b> <b>BERRIZ</b> Eitua industrialdea. 600 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.</p>	 <p>C.E.E=G 224.000€</p>	<p><b>IURRETA</b> <b>ZUBIAURRE:</b> 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. 198.000 €/ E.E.Z=F</p> <p><b>GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGO</b> <b>ANTSO EZTEGIZ:</b> Garajea. 45 € / hilean. Motorrentzat egokia.</p> <p><b>KURUTZIAGA:</b> garajea. 18.000 €.</p> <p><b>KURUTZIAGA:</b> Garaje itxia 22.000 €.</p> <p><b>MADALENOSTE:</b> Garaje itxia eta trastelekua. 42.000 €.</p>
 <p>C.E.E.= F 470.000€</p>	<p><b>BASERRIA</b> 436m2. Berriztatua. 3 solairu. 4 logela, 2 komun. 2 balkoi. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. Garaje itxia. 4 hektareako lursaila.</p>	 <p>16.000€+ BEZ-a.</p> <p><b>MATIENA: TRAÑAERROTA:</b> Lehen eta bigarren solairuetan dauden garaje-plazak. Eraikin berria. Salgai.</p>	<p><b>LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGO</b> <b>ANDRA MARI KALEA:</b> 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E</p> <p><b>BARANDIARAN KALEA:</b> 50 m2-ko lokala. 800 € hilean / E.E.Z=Bidean.</p> <p><b>IBAZABAL AUZUNEA:</b> 60 m2-ko lokala. 240.000 € / E.E.Z=E</p> <p><b>KOMENTU KALEA:</b> 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. 55.000 € / E.E.Z=F</p> <p><b>ZABALE KALEA:</b> 50 m2-ko lokala. 60.000 € / E.E.Z=F</p> <p><b>ABADIÑO</b> <b>TXIÑURRISOLO:</b> 38 m2-ko lokala. 495 € hilean / E.E.Z=E</p> <p><b>SAN ANDRES KALEA:</b> 11 m2-ko lokala. 40.000 € / E.E.Z=bidean.</p> <p><b>ALIENDALDE:</b> 285 m2-ko pabilioia. 250.000 €.</p> <p><b>IURRETA</b> <b>ZUBIAURRE:</b> 11 m2-ko lokala. 20.000€ negoziagarriak.</p>

## Lortuko dugu



IRURI ALTZERREKA  
MARTINEZ

Lortuko dugu. Historikoa izango da. Instagrameko posta, data eta ordua. Sarrerak erosteko esteka. Bihartik aurrera esku-ragarri. Behin baino errepikatuko ez den ikuskizuna. Joateko tentazioa. Baina, zer lortuko dugu zehazki?

Euskal hiztunok ez gara ados jartzen zer komeniko litzaigukeen zehaztean. Estadio handiak, areto txikiak, plaza izkinak, gaztetxeak, kulturaguneak. Zer behar du euskarak? Euskal musika? Ziurrenik horiek guztiak, eta askoz gehiago. Edozelan ere, gero eta ohikoagoak bihurtzen ari dira euskal artisten makro kontzertuak, musikatik harago doazenak. Esperientzia oso eta integrala hitzematzen dizute. Ahaztuko ez duzun espektakulua. Panorama horren aurrean, beraz, utzidazue gutxienez zalantza adierazten.

Azken asteetan iritzi publikoaren zentroan egon da gaia. Aldeko eta kontrako arrazoiak entzun dira: musikari zein artistenak, zutabegile eta herritar kezkatuenak. Ziurrenik horietako asko errepikatuko izango ziren. Baita nirea ere. Debatea egon badago.

Bada handian pentsatzea gutxiesten dugula dionik, eroso gaudela txikitatsunean. Bateriaezinak izango balira bezala. Handitasun hori zertarako, zergatik eta nola lortu nahi dugun hausnartu behar genuke agian. Bitartean, egiozu galdera bat zeure buruari. Nolako kultura konsumitu dut azken hileetan?

## "HAZI arropa marka bat baino gehiago da, jarrera bat da guretzat"

ALAZNE BELAR ETA JON AGIRREBEITIA HAZI

Aitziber Basauri ABADIÑO

Alazne Belar Tabliegak (Durango, 1989) eta Jon Agirrebeitia Lekuek (Abadiño, 1990) moda eta diseinua gogoko dituzte, eta, mundu horretan murgildu guran, HAZI proiektua sortu zuten. Oraindino ikasteko asko dutela diote, eta txiri-txiri egin gura dutela bidea (@hazitrend). Durangaldean dituzte eskaririk gehienak, baina Burgosetik, Madriletik eta Kantabriatik ere izan dute enkarguren bat.

**Urtebete da hazia erein zenuela. Zelakoa izan da orain arteko bidea?**

**Alazne Belar:** Ondo joan da, pentsatu baino hobeto. Ilusioz hasi ginen, jakin barik zelan joango zen, eta pentsatuaz, igual, kamisetak lagunei oparitutako genizkiela urtegunetan (barrez). **Jon Agirrebeitia:** Bai, ideia zoro bat izan genuen. Lehenengo kamiseta oso ondo saldu genuen, jendeagaz nahiko hartu-eman positiboa izan genuen, eta aurrera jarraitu dugu.

**Balorazioa positiboa da, beraz.**

**J.A.:** Oso positiboa. Ez genuen uste honaino helduko ginenik. **A.B.:** Bai. Eta egundoko ilusioa egiten du jendea gure kamisetekin ikusteak. Batez ere, herrian saldu dugu, baina pozgarria da jendeak ea kamisetarik badugun galdetzea. Umetxoentzat ere atera genituen kamiseta batzuk, eta oso polita da eskolan haiekin ikustea eta umeez gurasoei kamiseta eskatzen dietela ikustea.

**Zelan definitutako zenukete zuen-proiektua?**



Alazne Belar eta Jon Agirrebeitia, Abadiñon.

**J.A.:** Arropa marka bat baino gehiago da, jarrera bat da guretzat. Gauzak gogoz, konpromisoz eta benetakotasunez egiten dituzten pertsonentzat sortua. Uste dugu zer egiten duzun baino garrantzitsuagoa dela zelan egiten duzun. HAZIren bitartez komunitate bat eraiki gura dugu, gure egiteko moduagaz identifikatzen den jendea elkartzeko. **A.B.:** Uste dugu indarragaz eta gogoagaz dena lortu daitekeela, bizitzak trabak ipini arren. **Arduraz egindako kamisetak dira zuenak, iraunkorrak.**



**A.B.:** Bai, %100ean kotoi organikoz eginda daude. Kirol-jertse batzuk ere bai, ez denak. Produktuaren eta prezioaren artean oreka mantendu gura dugu. HAZI denen eskura egotea gura dugu. **J.A.:** Ahal dugun neurrian, mundu iraunkor baterako gure alea ipini gura dugu.

**Kamisetak, kirol-jertseak eta biserrak saltzen dituzue. Aurrera begira, eskaintza zabaldu gura zenukete?**

**J.A.:** Proba batzuk egin ditugu, prakekin, bainujantziekin... baina proiektu txikia da gurea.

**A.B.:** Apurka goaz, ahal duguna egiten. Gu biok gara, bakoitzak bere lana du, eta familia dugu. Urtean zehar zenbait produktu atera gura genuke. Guk zer erabiliko genuen aztertzen dugu, eta, hortik abiatuta, jendeak zer izan dezakeen gogoko.

**Diseinua sortu eta Bilbo ingurura eramaten duzue serigrafiaz.**

**J.A.:** Bai. Neuk serigrafiatu gura nuke, baina oraindino goiz da horretarako. Lehenengo diseinua bion artean sortu genuen, eta bigarrena Elorrioko diseinatzaile batezag elkarlanean.

**Abadiñoko azokan egon izan zarete.**

**A.B.:** Bai, eta joan zen astean Ondarroako Euskal Herriko Kamiseta azokan. Familia osoa egoten gara, gainera. Elkar eza-gutzeko aukera ematen du eta beste azokaren batera ere joan gura genuke.

**J.A.:** Aurrez aurreko hartu-ema garrantzitsua da. Galdetzeko, produktuak ukitzeko... Sorpresaren bat ere izan dugu: adineko andre bat etorri zen kamiseta bat erostera. Penaz joan zen, ez zuelako neurrikorik topatu.

**Noraino helduko da HAZI?**

**J.A.:** Oinak lurrean ditugula, Bizkaira zabaldu gura genuke. Eta Euskal Herrira bada, ba hobeto, baina astiro.

### Motzean

**Sortzeko, musika ala isiltasuna?**

**A.B.:** Musika.

**J.A.:** Isiltasuna.

**Mendia ala hondartza?**

**A.B.:** Mendia.

**J.A.:** Hondartza.

**Ezinbesteko osagarria?**

**A.B.:** Biserak gustuko ditut.

**J.A.:** Gerrikoak.

**Jertsea, txanoduna?**

**Biak:** Bai, txanoduna.

# PABILIOIA SALGAI

Iurretan, Mercadona ondoan

# 1.190m<sup>2</sup>

Tel.: 94.681.66.73  
Mug.: 649 40 26 23  
zarateyexpe.com